



Save the Children

**SEGURUA, BATZUENTZAT SOILIK:  
LEKUALDATUTAKO HAURREI  
HARRERA SELEKTIBOA  
EGITEN ZAIE EUROSPAN**

Save the Childrenen iritziz, haur guztiek merezi dute etorkizun bat. Europan eta mundu osoan, egunero saiatzen gara gure lanaren bidez haur guztiek modu osasuntsu batean ekin diezaioten bizitzari eta ikasteko eta kalte eta arriskuetatik babesteko aukera izan dezaten. Krisi bat sortzen denean eta haurrak egoera zaurgarriagoan geratzen direnean, lehenengoak gara beti erantzuten, eta azkenak leku horiek uzten. Haurrek berariaz dituzten beharrei erantzungo zaiela eta haien ahotsa entzunaraziko dela bermatzen dugu. Eraitza iraunkorrak lortzen ditugu milioika haurrentzat, baita iristeko zailak diren egoeretan daudenentzat ere.

Behar den guztia egiten dugu haurrentzat, bai egunerokoan eta bai krisi garaian, haien bizimodua eta guztion etorkizuna eraldatuz.

## ESKER ONEZ

**Egilea:** Daniel Gorevan, hauekin batera: Sofia Rönnow Pessah eta Federica Toscano

Save the Childrenek eskerrak eman nahi dizkie bereziki Europan segurtasun bila zebiltzala izandako esperientziak gurekin partekatu dituzten haurrei, beren historiak guri argi eta garbi kontatzeko ausardia izan dutelako. Aldatu egin ditugu haien izenak, beren identitatea babesteko.

Save the Childrenek eskerrak eman nahi dizkie hauei ere, txosten honi egin dioten ekarpenagatik: Anneli Groen, Jennifer Zuppiroli, Eveliina Viitanen, Anna Pantelia, Sofia Rasmussen, Sara Granath, Marvin McNeil, Renata Keršien, Piotr Kabala, Francesca Marconi, Camilla Engeset, Katrine Broch Hansen, Veronica Boggini, Giusy D'Alconzo, Nina Hössli, Tatjana Ristic, Guste Baltuskiene eta Iheslarien Kontseilu Greziarra, Save the Childrenen bazkide dena.

Save the Childrenen Migrazioaren Defentsarako Europako Taldearen jardueren parte da argitaratutako txosten hau.

## ARGITARATZAILEA:

Save the Children Europe  
Rue Marie Thérèse 21  
1000 Brussels Belgium  
+32 (0)2 512 78 51  
www.savethechildren.net

Azaleko argazkia: Pedro Armestre / Save the Children

*“Asteartean, gorpuak ikusi genituen uretan, eta pentsatu nuen horrelako zerbait gertatuko zitzaidala agian neuri ere. Negar asko egiten nuen. Ez zebilen motorra. Zer gertatuko ote zitzaigun?”*

**Samia\***, 15 urtekoa; Marokotik Kanarietara (Espainia) bidean bizitako esperientzia deskribatu digu.

*“Oso zaila izan zen. Basoan joan ginen oinez hainbat orduan, janaririk eta urik gabe; oinez ibili eta guztia ondo atera zedin otoitz egin, ez genuen besterik egiten.”*

**Abbas\***, 10 urtekoa, Siriakoa jatorriz; orain, Grezia iparraldeko kanpamentu batean bizi da.

*“Lau hilabete neramatzan basoan lo eginez [gurutzatzen saiatu aurretik]. Abiatu behar genuen egunean, ur ertzean nengoen; eta ezkutatuta geunden. Jende asko zegoen, eta korrika hasi ginen guztiok, polizia inguru hartan zebilela uste genuelako. Beste neska batekin nindoan ni korrika, eta bi mutil abiatu ziren gure atzetik; ikaratuta geunden, eta bi mutilek bortxatu egin gintuzten, nire laguna eta ni”.*

**Adrienne\***, 15 urtekoa, Boli Kostakoa; Espainian bizi da orain.

*“Joaten ginen tokira joaten ginela, jo egiten gintuen poliziak, tratu txar fisikoak ematen zizkiguten. Polizia irandarrak, greziarrak, turkiarrak, baita hemengoak ere [Bosniakoa].*

**AliDi\***, 16 urtekoa; Balkanetako ibilbidetik Europa gurutzatuz bizi izandako esperientzia deskribatu digu.

*“Esperientzia txarra izan zen; bost hilabete janari txarra janez, txakur jana izango balitz bezala. Kazetariak etorri ziren, eta argazkiak atera zizkiguten. Kartzela bat ematen zuen. Eta zikina zegoen.”*

**Wiam\***, 17 urtekoa; Kanarietako (Espainia) harrera-zentro bateko baldintzak deskribatu dizkigu.

*“Tokiz aldatzen zaren bakoitzean, gutxiago ikasten duzu, eta zaila da ikastetxe berri batean besteen erritmoari jarraitzea. Askotan joan naiz toki batetik bestera, eta ez dut izan denborarik eskolara joateko, bizi izan naizen hiri guztietan. Urte osoa galdu nuen.”*

**Anna\***, 10 urtekoa, Siriakoa; Suedian bizi da.

*“Orain, ez daukagu ez etxerik eta ez dirurik, eta horixe da nire kezkarik handiena. Egun batzuetan bizitzeko toki bat bilatu, eta, gero, beste toki batera joan behar izaten dugu.”*

**Marie\***, 11 urtekoa, Kongoko Errepublika Demokratikokoa; Grezian bizi da.

*“Suedian egin genuen bidea oso gogorra izan zen. Ukrainarrak Suediara zetozela jakin nuenean, zera galdetu nien: ‘Nolakoa izan zen honaino egin zenuten bidea?’. Oso ona izan zela esan zuten, autobus bat hartu, eta zuzenean Suediara ekarri zituela. Eta pentsatu nuen: Hau ez da bidezkoa. Zinez eta minez, ez da bidezkoa”.*

**Omar\***, 17 urtekoa, Siriakoa; Suedian bizi da orain.

# AURKIBIDEA

- 5 LABURPEN EXEKUTIBOA
- 8 TESTUINGURUA
- 11 **EUROPAN SEGURTASUN BILA DABILTZAN HAURREN KONTRAKO INDARKERIA, HERIOTZAK ETA BEROAN EGINDAKO ITZULKETAK**
  - 11 - Bidaia hilgarriak
  - 11 - *Pushback* edo beroan egiten diren itzulketak: Europa osoan zabaldu den fenomenoa
  - 14 - Haur migratzaileen kontrako indarkeria
  - 15 - Desberdinkeria mugetan
  - 17 - Ukrainari emandako erantzunetik ateratako ikasbideak
- 18 **ZIRKULAZIORAKO MUGAK**
  - 18 - Zirkulaziorako mugak eta atxikitzeak helmugako lehen herrialdeetan
  - 20 - Zirkulaziorako mugak beste herrialde batzuetan
  - 21 - Zirkulaziorako mugak EBko herrialdeen artean
  - 22 - Erantzukizunen banaketa desegokia
  - 22 - Ukrainari emandako erantzunetatik ateratako ikasbideak
- 23 **BABESAREN MUGAK ETA HORREK HAURREN ZERBITZUETAN DUEN ERAGINA**
- 24 - Ukrainari emandako erantzunetatik ateratako ikasbideak
- 28 **EUROPAKO POLITIKEN ONDORIOAK HAURREN BURU-OSASUNEAN**
- 30 **BEHIN-BEHINEKO BABESAREN ETA SISTEMA DESOREKATU BATEN MUGAK**
- 31 **ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

# LABURPEN EXEKUTIBOA

Zentzun askotan, eredugarria izan da Europar Batasunak (EB) eta Europako estatuak Ukrainako gatazkatik ihesi zetozen iheslariei emandako erantzuna. Bigarren Mundu Gerraz geroztik Europan izan den iheslarien mugimendu handienari eman dioten erantzunean, Europako gobernu eta erakundeek erakutsi dute gai direla gatazka suntsitzaile batetik ihesi etorritako haurrei eraginkortasunez lagunduko dieten politikak hartzeko.

Lehen aldiz, Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua (ABBZ) aktibatzea onartu zuen berehala EBk, eta legegintzako baliabide bat da hori, Europara segurtasun bila etorritako pertsona askori EBko herrialdeek berehalako babesa eman diezaieten. Antzeko neurriak hartu zituzten EBkoak ez diren Europako herrialdeek ere. Gobernu nazionalak ahalegin handiak egin dituzte Ukrainako haurrek babes-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak eskuratu ditzaten, eta baliabide ugari zuzendu dituzte zeregin horretara.

EBk eta estatu kideek Ukrainako iheslariei egin dien harrera ikusita, argi geratu da iraganean antzeko ikuspegi bat hartuta jokatzeko borondatea falta izan zaiela. 2015ean eta 2016an asiloa eskatu zuten iheslariekin alderatuta -nabarmen egin zuen gora garai horretan iheslarien kopuruak-, babesa eskatu duten ukrainar iheslarien kopurua ia bikoitza izan da. Baina krisi hari emandako erantzuna disfuncionala izan zen, kasurik onenean, eta krudela, kasurik txarrean. EBn asiloa eskatzeko haurren gaitasuna murrizten duten neurriak (oraindik ere indarrean diraute), iritsi zirenei eusteko neurriak eta beste batzuei etortzeko asmoa burutik kentzekoak sartu eta gogortu zituen erantzun hark.



Save the Childrenen ikerketetan, haurrei egindako elkarrizketetan eta Europako 13 herrialdeetako esperientzian oinarrituta, Europar Batasuna eta Europako estatuak aplikatzen ari diren askotariko politikek haurren zer ondorio dituzten aztertu dugu txosten honetan.

## **EUROPAKO MUGAK: HILGARRIAK ETA ARRISKUTSUAK HAUR MIGRATZAILEENTZAT**

Haurrak ihes egitera behartuta daudenean, arrisku handiagoa izan ohi dute abusuak, esplotazioa, salerosketa eta indarkeria jasateko. Berehalako arriskuez gain, arrasto sakonak uzten dizkiete haurrei, beren ongizateari begira, lekualdaketa horien albo-ondorioek, hala nola bizi-baldintza txarrak eta hezkuntza falta.

2019tik, Mediterraneoko bideetan dabilzan 50 iheslari eta migratzailetatik bat hil edo desagertu da, gutxi gorabehera. Saihestu zitezkeen heriotzak dira, eta, egiazki, Europako estatuak hartutako aukera politikoen eta horietako agentzia eta agintariak hartutako erabaki operatiboen emaitza dira. Ia erabat moztu dira arauzko bideak babes bila dabilzan haurrentzat eta horien familientzat: nazioarteko babesa ematen zaien pertsonen % 90 modu irregularrean iristen dira Europako herrialdeetara; askotan, gero eta bitarteko arriskutsuagoetara jo behar izaten dute horretarako, eta bidaia hilgarriak egin behar izaten dituzte, nabigatzeko egokiak ez diren eta jendez gainezka doazen txalupetan itsasoak gurutzatuz, esaterako.



Dan Stewart / Save the Children

Europar lehorreko eta itsasoko mugetan gertatzen diren heriotza askoren arrazoietakoa bat, neurri batean, Europako gobernuek gero eta maizago hartu izan duten joera bat da: ez diete sartzen uzten iheslariei, indarrez, ilegalki eta, askotan, indarkeria erabilita, eta, areago, iritsi direnak bahituak eta kanporatuak izan dira askotan.

Operazio horietan, sistematikoki, indarkeria erabiltzen da haurrekin. Save the Childrenek elkarrizketatu dituen haurrek deskribatutakoaren arabera, biluztu egiten dituzte, hotzetan zutik egonazten diete, deskarga elektrikoak aplikatzen dizkiete, eta makilekin jotzen dituzte. Europako mugetan, indarkeria hori erabiltzen dutenak mugako poliziak izan ohi dira, baina trafikatuak eta horien konplizeak ere berdin jokatzen dute. Europara iristeko eta asiloa eskatzeko legezko bide segururik ia ez dutenez, haurrak eta horien familiak behartuta daude askotan pertsonen trafikatuak mende egotera, indarkeria erabiltzen duten harrapakarien mende egotera; eta batere egokiak ez diren ontzietan sartu eta itsasoak zeharkatzea ere bai.

## ZIRKULAZIORAKO MUGAK: HAURREN SUFRIMENDUAREN ERROAN DAGOEN ARRAZOIETAKO BAT

Iheslarien eta migratzaileen sarrera oztopatzeko, haur eta familiei zuzendutako disuasio-saioez gain, ahaleginak egiten dira iristen diren horiei eusteko. Zirkulazioari jarritako mugek eragin esanguratsua dute haurengan, horien barnean hartuta bidaiderik gabeko adingabe asko eta asko.

Greziar uhartean, Espainiako Kanarietan edo Ceuta eta Melilla enklabeetan, Italiaren hegoaldean eta beste hainbat tokitan, muga horiek egoera larriak sorrarazi dituzte, jende-pilaketak eta bizitoki prekarioak edo gabezia handiko bizitokiak, esaterako, asilo-eskatzaileentzat eta migratzaileentzat; eta indarkeria eta esplotazioa jasateko arriskuan jarri dituzte

emakumeak, haurrak eta egoera zaurgarrian dauden pertsonak. Kasu batzuetan, haurrak atxilotzea izan da auzi horri eman zaion erantzuna.

EBko legediak “asiloko lehen herrialdean” jartzen duen enfasiaren ondorioz, oso zaila eta gogaikarria da haurrentzat eta horien familientzat EBko herrialdeen artean mugitzea. Berritua familia elkartzeko prozesuak konplexuak dira, eta denbora asko eskatzen dute; horrek halako inbutu moduko batzuk sortzen ditu, eta, horren ondorioz, haur batzuk beren kabuz saiateren dira familiekin elkartzen. Kalteak jasateko eta pertsonen salerosketaren eta esplotazioaren biktime izateko arriskuak areagotzen ditu horrek.

Baldintza horiek oso ondorio larriak dituzte haurren garapenean eta osasun mental eta fisikoan, luzera begira, eta larriagotu egiten du horrek berak etxean edo bidaian bizi izandako gertakari traumatikoen esperientziaren eragina.

## HAURREN BABESAREN MUGAK, ETA HAURREN ZERBITZUETAN HORREK DUEN ERAGINA

Haurrek Europako asilo-sistemetan sartzea lortzen dutenean ere, gero eta gutxiagok lortzen dute iheslarien estatusa. Finlandiak, Suediak, Norvegiak, Danimarkak, Alemaniak eta beste herrialde batzuek ere beste murrizketa batzuk ezarri dituzte, hala nola diru-sarrerak handiak izan beharra edo integrazio-baldintza batzuk bete beharra, eta horrek berak ere zaildu egin die adingabeei asiloa lortzeko bidea, familiarekin elkartzea eta beren baimenak berritzea.

Asilo-sistema disfuntzionalek babesik gabe eta zerbitzuetarako sarbiderik gabe uzten dituzte haurrak. Grezian, osasun-sistemako sarbidea mugatuta daukate asilo-eskatzailearen txartela ez duten pertsonak, eta legezko estatusik ez izateak oztopoak sortzen ditu haurrek herrialde horretan hezkuntza jaso dezaten. Espainian, asiloa eskatu nahi duten familiek harreraren sisteman sartzeko dituzten zailtasunen ondorioz, ukatu egiten zaizkie hainbat zerbitzu, eta are etxerik gabe ere geratu dira.

## UKRAINARI EMANDAKO ERANTZUNA: ETORKIZUNERAKO PLANA?

Ukrainar haurrek erronka handiak dituzte aurrez aurre, eta arrisku larriak, beren herrialdetik ihes

egitean. Gatazka suntsitzaile batetik ihesi doaz, beren familiengandik eta maite dituztenengandik banandu dituzte, eta babes-herrialdera egokitu behar dute. Baina mugak ez igarotzeko ahaleginen ondorioz ziratekeen arrisku larriagoi aurre egin beharrik ez dute izan, eta nahiko azkar eta erraz eman dezakete izena babesa jaso ahal izateko. Zerbitzu hedatuagoetara errazago jo dezakete, eta senideak dituzten tokietara edo eskolak dituzten tokietara joan daitezke.

Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua luzera begirako irtenbide bat ez izan arren, gobernu nazionalak ukrainar haur guztien babesa eta laguntza bermatzen ahalegintzen ari dira, eta adierazgarria da ahalegin horiek haurren ongizatean eta etorkizuneko perspektibetan duten eragin positiboa.

Europako Batzordeko Presidente Ursula von der Leyenek 2022an Europar Batasunaren egoerari buruzko hitzaldian adierazi zuenez, Ukrainako iheslariei egin zaien harrera “aurrera egiteko plan bat” izan daiteke, eta Europak duintasun eta errespetuz kudeatu behar du migrazioa.

Europar Batasuna Asiloari eta Migrazioari buruzko EBren Ituna negoziatzen ari den bitartean, eskaera bat egiten die Save the Childrenek estatuetako eta EBko arduradunei: haurren eskubideak defenda ditzatela, eta Europar segurtasun bila dabilzan adingabe guztiei berma diezazkietela horretarako bide seguru eta legalak, zirkulazio-askatasuna, babesa eta beren bizitzetara berrekitzeko behar duten laguntza.



Dan Stewart / Save the Children

## GOMENDIO NAGUSIAK\*

Europako gobernuek, EBko erakundeek eta kide diren estatuek honako hauek bermatu behar lituzkete:

- Epe luzerako babesa eta laguntza ematea Ukrainatik ihes egin duten haur guztiei:**
  - Ukrainatik datozen iheslari guztiei herrialde horretan liskarrek dirauten bitartean eta itzultzea segurua izan arte babesa emateko konpromisoa hartzea.
  - Eskolen gaitasuna, gizarte-zerbitzuak, laguntza psikosoziala, hizkuntza-eskolak eta aisialdiko jarduerak zabaltzea, Ukrainatik datozen haurrentzat.
- Ukrainako iheslariei emandako erantzunean ikasitako jardunbide egokiak eta irakaspenak Europar segurtasun bila dabilzan haur guztiengana zabaltzea:**
  - Adingabe iheslari eta migratzaileei eta horien familiei Europara iristeko arazko bide seguruak eskaintzea, eta, edozein egoeratan, haien eskubide guztiak errespetatzen direla bermatzea, mugan eta herrialdeen barnean.
  - Europar segurtasun bila dabilzan haur guztiei babesa, laguntza eta zerbitzuak eskuratzeko bideak erraztea, inolako bazterkeriarik gabe eta erabat errespetatuz adingabe bakoitzaren interes gorenak.
- Haurren eskubideak Migrazio eta Asiloari buruzko Itunaren erdigunean jartzea:**
  - Ituneko babesteko eta familia berritua elkartzeko prozeduretan sarbide azkarra ematen dela, zirkulazio-askatasuna ahalbidetzen dela eta adingabeen atxilotzea edo hori ahalbidetu dezakeen beste edozein politika debekatzeko bermatzea.
  - Ituneko asilo-sistema europar bat sortzen duela bermatzea, kide diren estatuen arteko elkartzunean oinarrituta, eta giza eskubideak erabat betetzen direla eta babeserako sarbidea murrizten ez dela bermatzeko, ikuskapenak egiten direla bermatzea.

\*Gomendioak osorik txostenaren amaieran

# TESTUINGURUA

2022ko otsailean, Ukrainako gatazka gogortu egin zen, eta Europako herrialdeetara jende kopuru handiak lekualdatzea eragin zuen horrek. 7,9 milioi iheslari baino gehiago izan dira Europa osoan zehar, eta haurrak dira horietako % 40.<sup>1</sup> EBk Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua (ABBZ) onartu zuen berehala. Jugoslavia ohian izan ziren gatazken ostean, 2001ean hartu zuen neurri hori EBk, hain zuzen, aldi baterako eta berehala babesa eman ahal izateko iheslariei, baldin eta Europar Batasuneko kide ez ziren herrialdeetatik jende kopuru handiak iristen baziren Europara. EBko kide ez diren Europako beste herrialde batzuek ere antzeko babes-neurriak hartu zituzten Ukrainatik zetozen iheslarientzat.<sup>2</sup>

ABBZren arabera, ukrainar iheslariak honako eskubide hauek dituzte: bizileku-baimena, hezkuntzarako sarbidea, zirkulazio askea, osasun-arreta, lan-merkaturako sarbidea, eta bizitokia.<sup>3</sup> 2022ko udazkenean, Europako Batzordeak iragarri zuen ABBZ automatikoki berrituko zela eta, beraz, indarrean izango dela gutxienez 2024ko martxora arte. Orduetik aurrera, Kontseiluaren erabakia beharko da zuzentaraua beste urtebetez luzatzeko, eta, ondoren, ezin izango da berriro luzatu.



Praktikan, Ukrainako haurrek eskubide horiek dituztela bermatzeak erronka esanguratsuak ekarri dizkiete EBko gobernuei. Gatazka batetik ihes egin duten eta beste herrialde batera doazen haur guztiak errealitate berri batera egokitu behar izan dute, maite dituzten familia, senitarteko eta lagunengandik bereizita, eta etxean gertatzen ari denak sortzen dien beldur eta estutasunari egin behar izan diote aurre, batik bat gertaera traumatikoen lekuko izan direnean. Ukrainar haurrak ez dira desberdinak.

Gobernu nazionalak ahalegin berezia egin dute adingabe horiek eskolara joateko modua dutela bermatzeko, kontuan hartuta eskola horien gaitasunean dauden gabeziak eta etorreren kopuruak.<sup>4</sup> Zehazki, gatazkaren ondorengo hasierako faseetan, hainbat arrisku izan zituzten adingabeek eta beste talde zurgarri batzuek, hala nola boluntarioen zereginen ikuskapen falta, harrerako familien aurrekariak zehazki aztertu ezin izatea eta horiek ezin ikuskatu izatea, eta pertsonen salerosketarako arrisku handiagoa, herrialdeetik kanpo eta Europan zehar lekualdaketak kontrolik gabe egiten zirenez.<sup>5</sup> Erronkak erronka, EBk eta kide diren estatuek pauso esanguratsuak eman dituzte, eta baliabide ugari bideratu dituzte iheslarien krisiari haurren eskubideei lehentasuna emanez erantzungo dien bide bat lantzerantz.

Baina EBk eta Europako herrialdeek Ukrainako iheslariei egindako harrera horrek iraganean horretarako borondaterik ez dutela izan islatu du. 2022an, aldi baterako babesa jasotzeko, Ukrainatik etortitako 4,8 milioi pertsona erregistratu ziren, eta EBn 2015ean eta 2016an, batik bat Siriatik zetozen iheslarien etorrera izugarri handitu zen urteetan, asiloa eskatu zuten 2,5 milioi iheslarien ia bikoitza da kopuru hori.<sup>6</sup>

2015ean, EBk ez zuen ABBZ baimendu. Krisi horri emandako erantzuna disfuntzionala izan zen kasurik onenean, eta krudela, txarrean: EBn asiloa eskatzeko haurrek duten gaitasuna murrizten duten neurriak (indarrean diraute oraindik), iritsi zirenei eusteko neurriak eta beste batzuei etortzeko asmoa burutik kentzekoak sartu eta gogortu zituen erantzun hark.



2022an, 4,8 milioi ukrainar erregistratu ziren aldi baterako babesa eskatzeko; 2015ean eta 2016an, batik bat Siriatik zetozen iheslarien etorrera izugarri handitu zen urteetan, EBn asiloa eskatu zutenak 2,5 milioi pertsona izan ziren: bikoitza da hori ia.

## EUROPARAKO BIDEAK ITXITA

2015eko udazkenean eta 2016ko udaberrian, Europako gobernuek zenbait nazionalitateko pertsonen sarbidea mugatzen hasi ziren. Ondoren, sarrerarako kuotak onartu zituzten, eta, azkenik, mugak itxi zizkieten iheslari guztiei.

Orduetik, agintari nazionalak are gehiago handitu dituzte inbertsioak hesi fisikoak eraikitzeko eta mugak zaintzeko, iheslari eta migratzaileak beren lurretan sar ez daitezten.<sup>7</sup> Muga eta kostaldeetako guardiaren Europako Frontex Agentziaren aurrekontua eta erantzukizunak izugarri handitu dira 2016tik: 5 milioi euro zegozkion 2005ean, eta 754 milioi egokitu zaizkio 2022an. EBko agentziarik handiena da, hain zuzen.<sup>8</sup>

2016ko martxoan, EBk "lankidetzat-adierazpena" sinatu zuen Turkiako gobernuekin, eta, adierazpen horren bidez, Turkiatik greziar uharteetara modu irregularrean zihoazen pertsonak atxilotuko zituen Turkiak, Turkiatik uharteetara modu irregularrean iristen zirenak Turkiara itzularazi ahal izango zituen, eta uharteetatik itzularazitako siriar bakoitzeko, EBko kide ziren estatuek Turkia barnean zain zegoen siriar iheslari bat hartuko zuten.<sup>9</sup> Itun horren barnean, urteko 6.000 milioi euro hartu zituen urtez urte herrialdeko iheslarientzat, eta Turkiako herritarrek bisa-salbuespena izango zuten Europara bidatzeko.

Europarako beste bide batzuetan ere aplikatu da planteamendu hori. 2017an, Italiak elkar hartzeko memorandum bat ezarri zuen Libiako Akordio Nazionalako Gobernuarekin, eta, akordio horren bidez, finantzaketa eta "laguntza tekniko eta teknologikoa" emango zizkien "immigrazio ilegalaren aurkako borroka arduratzen ziren libiar erakundeei".<sup>10</sup> Akordio hori bi aldiz berritu da, gizarte zibila aurka eduki arren. Espainiak ere akordioak sinatu ditu Aljeriarekin, Malirekin, Marokorekin eta Senegalekin, bai sartzen direnak errazago itzularazteko eta bai migrazioarako pizgarriak kentzeko.<sup>11</sup>

Asilo-eskubidea nazioarteko legedian, estatuetakoetan eta EBkoan finkatuta dagoenez, eta EBren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 18. artikuluan ere barnean hartzen denez, EBk eta europar herrialdeek beste disuasio-ahalegin batzuk egin dituzte, lehen herrialdeko asilo-eskaerarako sarbidea murriztean oinarrituta; gainera, ez dago modurik EBko herrialde baterako bisa eskatu eta asiloa lortzeko.

Egonaldi mugatu baterako bisa-eskaera batean, ezinbestekoa da bisak indarra duen bitartean soilik egoteko asmoa duela erakustea eskatzaileak. Pertsona batek asiloa eskatuko duela adierazten badu, horrek erakusten du luzaroago geratzeko asmoa duela pertsona horrek, eta ukatzeko arrazoi da hori.<sup>12</sup> Espainian, esaterako, Palestinako eta Yemengo herritarrentzat iraganbideko bisa beharrezko eskakizun bihurtu zenean, bi herrialde horietako eskariak nabarmen murriztu ziren. Ez dira onartu bisa humanitarioak erabiltzen hasteko Europako Parlamentuak egindako proposamenak.<sup>13</sup>

Haur guztiek dituzte eskubideak. Eta hor sartzen dira bidean doazen haurrak ere, eta babes berezia dagokie gainera. Haurrek indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea dute, eta agintariek haien interes gorenaren alde jokatu behar dute, euren eskubidea da; atxilotuak eta baztertuak ez izateko eskubidea ere badute. Europako estatu guztien betebeharra da haurren eskubideak babestea, Haurren eta Nerabeen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren (HEH), Iheslarien Estatutuari buruzko 1951ko Konbentzioaren eta haren eranskin den Protokoloaren nahiz Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren sinatzaile diren aldetik.<sup>14</sup>

HEHren 19. artikulua neurri egokiak hartzeko eskatzen die estatuei, "haurrak indarkeria, kalte edo abusu fisiko edo mental orotatik, utzikeria edo zabarkeriatik, tratu txarretatik edo esplotaziotik (sexu-abusua barne) babesteko". Era berean, salerosketa eta esplotazio sexuala nahiz besteko esplotazio, abusu eta indarkeria moduak prebenitzeko betekizuna ezartzen die estatuei HEHk, eta berroneratzea eta integrazio soziala sustatzeko neurriak hartu beharra ere ezartzen die.<sup>15</sup>

Loteslea den nazioarteko zuzenbidean oinarrituta, estatuek adingabeen interes gorena lehenetsi behar dute, haiekin lotutako jarduketak guztietan (HEH, 3. art.).

Gainera, ez dira kriminalizatu behar haur migratzaileak eta ez zaizkie zigor-neurriak ezarri behar, beren estatusagatik edo beren gurasoenagatik. Migratzen ari direlako edo beren gurasoak migratzen ari direlako adingabeak atxilotzea haurren eskubideak urratzea da, eta adingabearen interes gorena zaintzeko printzipioaren aurka doa;<sup>16</sup> gainera, adingabeari tratu krudel, anker edo laidogarria emateko modu bat izan daiteke.<sup>17</sup> Oro har, ezin dira atxilotu bidaidarik gabe edo familiarengandik bananduta doazen adingabeak ere.<sup>18</sup>

Horrez gain, EBko kide diren estatuentzat loteslea da Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna, eta aurrez adierazitako alderdi gehienak islatzen ditu gutun horrek; asilo-eskubidea ere jasotzen du.



Pedro Armestre/Save the Children

# EUROPAN SEGURTASUN BILA DABILTZAN HAURREN KONTRAKO INDARKERIA, HERIOTZAK ETA BEROAN EGINDAKO ITZULKETAK

*"Asteartean, gorpuak ikusi genituen uretan, eta pentsatu nuen horrelako zerbait gertatuko zitzaidala agian neuri ere. Negar asko egiten nuen. Ez zebilen motorra. Zer gertatuko ote zitzaigun?"*

Samia, 15 urtekoa; Marokotik Kanarietarako bidea egin zuen.<sup>19</sup>

## BIDAIA HILGARRIAK

La legezko bide guztiak moztuta dituztenez, Europar babesa bilatu nahi duten haurrek eta horien familiek modu irregularrean egin behar dute bidea, beren asilo-eskubidea baliatu nahi badute. Europako herrialdeetan nazioarteko babesa eman zitzaizaien pertsonen % 90 ez dira iritsi Europara bide erregularretatik.<sup>20</sup>

Askorentzat, horrek esan nahi du gero eta bidaia arriskutsuagoak egin behar dituztela, bidaia hilgarriak zenbaitetan; jende piloaz inguratuta, nabigatzeko egokiak ez diren txalupetan sartu behar dute maiz, eta itsasoa zeharkatu. Heriotza asko gertatzen dira, bai lehorreko bideetan eta bai itsasokoetan. IOMk, migrazioarako NBERen agentziak, 55 hildako erregistratu zituen 2021ean, Greziaren eta Turkiaren arteko mugan soilik, eta beste 21 hildako, Bielorusiatik Poloniara iristeko ahaleginetan ari zirenen artean;<sup>21</sup> urtebeteko haur bat<sup>22</sup> eta 14 urteko mutiko bat<sup>23</sup> horien artean. 2022ko ekainean,<sup>23</sup> lagun hil ziren, 500 lagunetik gorako jende multzo bat Melillako lurretan (Espainia) sartzeko ahaleginetan zebilela Espainiako eta Marokoko mugako guardiek indarkeriaz kanporatu zituztenean.<sup>24</sup>

2019tik, 8.468 pertsona hil edo desagertu dira Mediterraneoan zehar Europara zuzendutako ibilbideetan, eta iritsi zirenak 487.142 izan ziren; horietatik % 20 adingabeak ziren. Horrek esan nahi du Mediterraneoan bideetan dabiltzan 50 iheslari eta migratzailetatik bat hil edo desagertu egiten dela, gutxi gorabehera.<sup>25</sup>

## PUSHBACK EDO BEROAN EGITEN DIREN ITZULKETAK: EUROPA OSOAN ZABALDU DEN FENOMENOA

*"Ez zuten gelditu nahi. Gugana zetozen. Itsasontzi azkarrak zituzten. Gure txalupa erdi-erdian jo nahi zuten gu geldiarazteko. Ez zekien inork zer gertatuko zen. Kostako guardiak jo egin nahi gintuen."*

Omar\*, 17 urtekoa, Siriatik etorria; 9 urte zituenean Europara egin zuen bidean izandako esperientzia deskribatu dizkigu.

Europako mugetan gertatzen diren heriotzak, neurri handi batean, Europako gobernuek iheslari indarkeria eta bortizkeria erabilia eta ilegalki beren lurraldeetan sartzeko eragozteko erakutsi duten gero eta joera indartsuagoren ondorio dira, eta iristen direnak bahitu eta kanporatzea ere iristen dira.<sup>26</sup> 2021ean, Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Komisarioak (UNHCR) ohartarazi zuen asiloari eraso egiten zitzaizola Europako mugetan, eta beroan egindako itzulketak gero eta ohikoagoak direla migratzaileei mugetan atzera eginarazteko, horretarako indarkeria erabiliz sistematikoki.<sup>27</sup> Gobernu kanpoko erakundeek dokumentatu ahal izan zutenenez, Balkanetako bideetan soilik, 1.303 haur ilegalki itzularazi ziren, eta horietatik 280 bidaidarik gabeko eta familiarengandik bereizitako adingabeak ziren.<sup>28</sup>

Greziar, ondo dokumentatuta dago asiloa eskatzen dutenei sistematikoki sarrera ukatzen zaiela eta greziar lurraldera iritsi direnak bahitu eta indarrez kanporatu dituztela. Migratzaileen Giza Eskubideei buruzko NBERen errelatore bereziak jakinarazi zuenez, beroan egiten diren itzulketak "izatez, politika orokorrak" dira Greziar, lehorreko eta itsasoko mugetan, eta gutxienez 17.000 pertsona itzularazi dituzte, indarra erabilia, Turkiara 2020tik; 140.000 pertsonari herrialdean sartzeko asmoa "burutik kendu zieten" sei hilabetean 2021ean.<sup>29</sup> Greziaren eta Turkiaren arteko lehorreko mugan izan ziren 55 heriotzatatik gutxienez 17k zerkusia izan zuten indarkeria erabiliz egindako itzulketekin.

**Samah\*, 33 urtekoa, siriarra; gaur egun, Grezian bizi da iheslari gisa, bere bi seme-alabekin.**

“Lau aldiz joanarazi gintuzten atzerantz, eta bosgarren aldiz itzuli ginen. Hainbat aste egin genituen ibai ondoan, hura gurutzatu nahian; ibaian garbitzen genuen geure burua. Atzerantz eginarazi ziguten azken aldia, lau egunez egon ginen basoan, ia urik eta janaririk gabe”.

“Polizia-etxetik 100 bat metrora geunden, eta furgoneta bat gure parera iritsi, gu indarrez harrapatu, eta autobusean sartu gintuzten. [...] Oso modu oldarkorren hitz egiten ziguten, eta lasaitzeko esan nien, haurrak genituelako gurekin, eta beldur zirelako. Alabari pixoihala aldatu behar izan nion, eta ez zidaten ez pixoihalik ez garbitzeko denborarik eman”.

“Nire seme-alabekin nengoen, eta biluzteko eskatu ziguten. Gela hartako polizia emakumea bazen ere, ez geunden eroso beste emakume eta haurren aurrean biluzik jartzeko; baina ez geneukan aukerarik. Barruko arropak kentzeari uko egin zion nire semeak”.

“Handik bi ordura, aurpegia estalita eta plakarik gabe zetozen beltzez jantzitako gizonen talde bat sartu zen, eta ela, ela, ela oihuka hasi zitzaizkigun (mugitu, mugitu, mugitu, greziarrez); kamioira sarrarazi gintuzten indarrez. Ez ziguten utzi oinetakoak janzen. Emakume bat bere haurrari bularra ematen ari zen, eta haurra titian zuela eraman zuten”.

Ibaira eraman gintuzten berriro, eta oso txalupa eskasak zeuzkaten han. Taldeka bereizi gintuzten, eta txalupara igoarazi. Ezin genuen ezer ikusi, eta nik ez

nuen nire seme Abbas Ez nekien non zegoen, eta esaten nien aurpegia estalita zeukaten haiei semerik gabe ez nintzela inora joan. Bestaldean, gizon bat ikusi genuen zuhaitz artean, pistola bat eskutan”.

**Abbasek\*, Samahren\* semea den 10 urteko mutikoak, esan zion Save the Childreni:**

“Oso zaila izan zen. Basoan joan ginen oinez hainbat orduan, janaririk eta urik gabe; oinez ibili eta guztia ondo atera zedin otoitz egin, ez genuen besterik egiten.”

“Baina polizia-etxetik 100 metro ingurura geundenean, furgoneta batek hartu gintuen. Krisi nerbiooso bat izan nuen han, eta ez nengoen ondo. Ezin nuen hitz egin. Batzuetan, mozorro beltza zeramaten haiek jo egiten ninduten. Biluzteko eskatu zigun poliziak, eta uko egin nion nik arropa guztia kentzeari. Gauetz aurpegia estalita zeramaten gizon haiek etorri zirenean, beste gelako taldea eraman egin zuten, eta haien oihuak entzuten genituen. Gero, gure bila etorri ziren, eta horixe egin zuten”.

Samah, Abbas eta Rima Grezia iparraldeko esparru batean bizi dira orain; Iheslarien Kontseilu Greziarra, Save the Childrenen kolaboratzaile den erakundea, laguntza juridikoa ematen ari zaie. Abbasek esan digu: “Hemen, esparruan, gizatasun handiz tratatzen gaituzte. Oso abegitsuak dira gurekin”. Tokiko eskolara joaten da; lagunak egin ditu han, eta futbolari profesionala izan nahi du handitan. “Gehien-gehien nahi dudana nire ama eta arreba mantentzea da, haiek ezereen faltarik ez izatea”, esan digu.



Pedro Armestre/Save the Children

**“Joaten ginen tokira joaten ginela, jo egiten gintuen poliziak, tratu txar fisikoak ematen zizkiguten. Polizia irandarrak, greziarrak, turkiarrak, baita hemengoak ere [Bosniakoak].”**

AliDi\*, 16 urtekoa

Greziako gobernuaren politikak EBko funtzionario eta erakundeen babes aktiboa eta taktikoa izan dute. 2020. urtearen hasieran Siriatic abiatu ziren iheslariak Greziako mugara iritsi zirenean, eta asilo-eskaeren erregistroa bertan behera utzi eta berehalako deportazioak ahalbidetzen zituen gobernuaren dekretua kaleratu eta egun batera, EBko presidentek Grezia gorapatu zuen, Europaren “ezkutu” zela esanez; migrazioa kudeatzeko, beste 700 milioi euroko laguntza osagarria emango zitzaiola iragarri zuen, eta hauxe adierazi zuen: “Gure lehentasuna Greziako kanpo-mugan ordenari eusten zaiola bermatzea da”.<sup>30</sup>

2022an, Iruzuraren Aurkako Borrokarako Europako Bulegoak jakin zuen Grezian asiloa eskatzen ari zirenak kanporatzeko jardura eta legez kanpoko itzulketak ezkutuan gorde eta jardura horiek finantzatzen lagundu zuela Frontex erakundeak.<sup>31</sup> Zuzendariak, 2015etik agentzia gidatu zuenak, dimisioa aurkeztu zuen horren ondorioz. Europako Parlamentuak uko egin dio 2020ko Frontexen aurrekonturi zegokion “likidazioa” emateari, eta “egindako hutsegite larrien neurria” eman du arrazoi gisa.<sup>32</sup>

Errumanian, UNHCRk 7.948 kanporatze edo beroan egindako itzulketa ilegal dokumentatu zituen 2021ean, lehen hiru hilabeteetan batik bat. Serbiatik zetozen ia 75.000 laguni Errumanian sartzea galarazi zien mugako poliziak, EBko Oinarrizko Eskubideen Agentziak adierazitakoaren arabera. Errumaniatik abiatu ziren lekualdaketak batez ere iparraldera zuzendu ziren, Hungaria aldera.<sup>33</sup> Serbian, Bosnia-Herzegovinan eta Albanian, Frontexen presentzia indartu du EBk, eta Ipar Mazedonian txertatu du; Serbiak, berriz, elkar ulertzeko memorandum bat sinatu zuen Austriarekin eta

Hungariarekin, lankidetzaz sustatzeko eta, horren bidez, “immigrazio ilegalaren aurkako borroka eraginkorra” egiteko eta “Europa babesteko”, berronartzeen inguruko kooperazioan zentratuta.

Horrez gain, zenbait herrialde estatuko legedian beroan egiten diren itzulketak tipifikatzen ahalegindu dira. Espainian, Atzeritarrei buruzko Legean, erreferentzia bat jaso zen 2015ean Ceuta eta Melillako lehorreko mugetara iristen ziren pertsonak “kanporatzeko” aukerari buruz.<sup>34</sup> Kanporatzeak tipifikatu zituen lege horretan xedapenak, nahiz eta giza eskubideei buruzko nazioarteko legeei eta nazioarteko babesari erreferentzia egiten zitzaion, legegintzako prozedurarako muga gisa. Praktikan, ohikoak dira bai beroan egiten diren itzulketak eta bai lurralde horietara sarrera ukatzea. 2021eko maiatzean, esaterako, bidaidetik gabe Ceutan sartu ziren 45 adingabe Marokoko Mugako Poliziaren esku utzi zituzten indarrez eta ilegalki, inolako berme prozesal edo judizialik gabe, eta adingabeen interes gorenari buruzko inolako ebaluaziorik egin gabe aurrez.<sup>35</sup>

Jendearen sarrera eragozteko Greziak turkiar agintariekin jarduten duen bezala, Espainiako gobernuak ere berdina jokatzen du Marokoko agintariekin, eta, askotan, Espainian segurtasun bila dabilen horiek arraza-ezaugarrien arabera bereizten ditu.<sup>36</sup> Mugako marokotar lurretan egiten diren kontrol diskriminatzaileen biktimak dira Saharaz hegoaldeko herritarrak, eta ez zaie uzten herrialdetik irteten eta espainiar aldera iristen. 2015eko urtarrilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra, Ceutan eta Melillan asiloa eskatu zuten 8.972 lagunetatik bi bakarrik ziren Saharaz hegoaldekoak.<sup>37</sup> 2021eko azaroan, bisita baten ostean, hala esan zuen Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak, Dunja Mijatović-ek: “Praktikan, Melillan sartzeko eta agintarien aurrean babesa bilatzeko modu bakarra dago, ematen duenez: igerian edo hesia saltatuz sartzeko, norberaren bizitza arriskatuz horretarako”.<sup>38</sup>

Mediterraneo erdialdeko herrialdeetan, segurtasun bila Italiara eta Maltara jotzen duten haurrek aurre egin behar diete bidaia traidore bati ez ezik Libiara itzularazteari ere, eta, NBEko idazkari nagusiak adierazi duenaren arabera, herrialde hori ez da “iheslari eta migratzaileentzat lehorreratzeko portu segurua”; izan ere, “sistematikoki, atxiloketa arbitrarioak eta torturak jasan behar izaten dituzte atxiloketa-zentro ofizialetan nahiz ez-ofizialetan”.<sup>39</sup> EBk eta kide diren estatuek laguntza aktiboa ematen diete libiar agintariei, bidean pertsonak atzeman eta Libiara itzularazteko, eta



Pedro Armestre/Save the Children



Pedro Armestre / Save the Children

jarduera horiek finantzaten dituzte. IOMk jakinarazi du 2021ean gutxienez 32.425 pertsona bidean atzeman eta Libiara itzularazi zituztela. 2022ko maiatzean, NBEk adierazi zuen 180 haur baino gehiago zeudela itsasoan atzitu eta Libiara itzularazi ziren 4.715 lagun artean.<sup>40</sup> Herrialde horretan torturatu eta atxilotutako adingabe iheslari eta migratzaileen zenbait kasu ere nabarmentzen zituen txostenak.

Haurrei modu aktibo batean atzera eginaraztearekin batera, ez da aintzat hartzen haien segurtasuna, harrarazten zaizkien bideetan. Gobernu arteko eta gobernu kanpoko zenbait erakunde dokumentatutakoaren arabera, azken urteetan, Mediterraneo erdialdeko bideetan, itsasoan arriskuan dauden pertsonen laguntzeko dituzten legezko betebeharren kontrako politikak eta jardunbideak erabiltzen ari dira Europako estatuak. NBEren Giza Eskubideen Bulegoak adierazi zuen itsasoan arriskuan zeuden pertsonen giza eskubideen babes falta ez dela “anomalia tragiko bat; aitzitik, libiar agintarien, EBko kide diren estatuen, EBko erakunde eta beste eragile batzuen erabaki politiko eta praktikoen ondorioa da; horiek guztiak elkarrekin sortu duten ingurunean, migratzaileen duintasuna eta giza eskubideak arriskuan jarri dira”.<sup>41</sup> Mugarik Gabeko Medikuek adierazitakoaren arabera, gutxienez 95.000 pertsona itzularazi zituzten Libiara 2017tik 2021era,<sup>42</sup> eta “heldu eta haur noraezean galduta edo itota utzi dira, EBko Frontex erakundeko mugako patruilako hegazkinak inguru horretan hegan dabiltzan bitartean eta libar kostazainei jende hori Libiara itzularazteko koordinatuak ematen dizkieten bitartean”,<sup>43</sup> aldiz, ez diete halako informaziorik ematen hurbil dauden itsasontzietan, ezta bizitzak salbatzeko xedez inguru horretan dabiltzan GKEen bilaketa eta salbamenduko itsasontzietan ere”.

## HAUR MIGRATZAILEEN KONTRAKO INDARKERIA

Save the Childrenek duela gutxi argitaratutako ikerketa batean erakutsi zenez, haurrekin indarkeriaz jokatzeko zen sistematikoki Balkanetako ibilbideetan. Haurrek salatutako indarkeria mota mugako polizia indarkeria fisikoa zen, batez ere beroan egin ziren itzulketetan.

Elkarrizketatu diren haurrek beren adierazpenetan esan dute biluztu egiten zituztela, zutik egotera behartzen zituztela, hotzetan, eta deskarga elektrikoak jarri eta makilaz jotze zituztela; lesio fisiko larriak zituzten, horren ondorioz.<sup>44</sup> Ikerketan parte hartu zuten haur guztiak adierazi zuten indarkeria fisikoaren, psikologikoaren, sexualaren eta bestelako indarkeria moten xede izan zirela, zuzenean edo zeharka. Ahmadek\*, 16 urteko adingabeak, hala kontatu zion Save the Childreni: “Haiatzat, berdinak gara iheslari guztiok. Ez zaie inporta haurra zaren edo ez, tratu bera ematen diete guztiak.”<sup>45</sup>

Indarkeria horren egileak mugako polizia ziren normalean, baina baita trafikatuak eta haien lagunak ere. Europara iristeko eta asiloa eskatzeko legezko bide segururik ia ez dutenez, haurrak eta horien familiak behartuta daude askotan pertsonen trafikatuak zirela mendeko egotera, indarkeria erabiltzen duten harrapakari hutsen mendeko egotera; eta batere egokiak ez diren ontzietan sartu eta itsasoak zeharkatzera ere bai.

Omarrek\*, trafikatuak laguntzarekin Europara Balkanetatik iristen ahalegindu zen 13 urteko mutikoak, hauxe kontatu zion Save the Childreni: “[haurrek] zarata egiten dutenean, edo [trafikatuak] kasurik egiten ez diotenean, zaplaztekoak ematen dizkie hark behin eta berriz”.<sup>46</sup> Save the Childrenek elkarrizketatutako haur batzuk lauzpabost urte zituztenean irten ziren beren herrialdeetatik, eta 9 urte zeharkatu bidaian, salbatzeko behin eta berriz beren burua arriskuan jarri eta huts eginez.<sup>47</sup>

11 urte zituztenean, anaiak konbentzitu egin zuen Adrienne\* (Boli Kostakoa), Marokora joan zedin eta, hala, beste herrialde bateko gizon batekin hitzartutako ezkontzari iskin egin ziezaion. 15 urte ditu orain, eta Espainian bizi da, eta Save the Childreni kontatu dio ez zuela bere herrialdea utzi nahi:

“Han gelditu nahi nuen, baina, azkenerako, konbentzitu egin ninduten anaiak eta izebak. Esan zidaten Marokon denbora gutxi pasatu beharko nuela, haren lagun batekin egongo nintzela Marokon”.

Anaiaren laguna ez zitzaion bila joan Marokora iritsi zenean, eta hantxe geratu zen, zoriaren mende; kalean lo egin zuen bi edo hiru hilabetean. Hala esan digu: “arrazakeria zegoen han, eta, pixkana, lan bila hasi nintzen, dirurik gabe geratzen ari nintzen. Marokoko eta Afrikako neska batzuek prostituta gisa lan egitea proposatu zidaten, baina nik ez nuen nahi”. Lana aurkitu zuen etxe batean, baina labana sartu zion etxeoandreak, eta ospitalera joan behar izan zuen. Adriennek ez zion poliziari kontatu, eta ospitaleko langileei esan zien erori egin zela.

Espainiari buruz hitz egin zioten lagunek, eta hara joateko ahalegina egitea erabaki zuen. “Lau hilabete neramatzan basoan lo eginez [gurutzatzen saiatu aurretik]. Abiatu behar genuen egunean, ur ertzean nengo; ezkutatuta geunden. Jende asko zegoen, eta korrika hasi ginen guztiok, polizia inguru hartan zebilela uste genuelako. Beste neska batekin nindoan ni korrika, eta bi mutil abiatu ziren gure atzetik; ikararuta geunden, eta bi mutilek bortxatu egin gintuzten, nire laguna eta ni”.

Handik gutxira, berriro saiatu zen. “Segurtasun falta handia sentitu nuen bidaian, eta ez nekien zer egin. Pentsatu nuen nire bizitza hantxe amaituko zela”. Espainiara iritsitako gertaeraz, hauxe esan digu: “Hilabetean, kartzela baten antzeko toki batean egon ginen, erabat itxita, eta, gero, neskak hotel batera joan ziren. Zoratu nintzen ia. Ez nekien zer egin, norekin, ez eta nora joan ere”.

Etorkizunean, familia ikusi nahi du Adriennek, eta medikuntza ikasi nahi du. Horrez gain, bidaiatzea gustatuko litzaioke. “Gustura joango nintzateke Frantziara bisitan, hainbat lagun baitaude han; eta Ingalaterrara ere bai”.<sup>48</sup>

## DESBERDINKERIA MUGETAN

Desberdinkeriaren adibide adierazgarrietako bat EBko kide diren estatuek eta EBk berak Ekialde Ertaineko eta Afrikako herrialdeetatik zetozen iheslari eta migratzaileen sarrerari emandako erantzunean datza, Bielorrusiatik EBn sartze ahalegindu zirenean eman zieten erantzunean. Bai estatuetako gobernuak eta bai EBko funtzionarioek “mehatxu hibrido” gisa kalifikatu zituzten iristen ari ziren haiek.<sup>49</sup> Poloniako gobernuak larrialdi-egoera deklaratu zuen, eta lege berriak sartu edo lehendik indarrean zeudenak aldatu zituen, “Poloniako immigranteen kanporatze sumarioa” ahalbidetzeko, “nazioarteko babesa eskatu arren”; eta ez zen inolako salbuespenik egin haurren kasuan, ez bidaiderik gabe zeudenean eta ez familiarekin zeudenean.<sup>50</sup>

Praktikan, jada gertatzen ari ziren horrelakoak, eta aurrez ere salatu izan zen nazioarteko babesa eskatzen ari ziren pertsonak Bielorusiara itzularazi zirela,<sup>51</sup> “basoan inguratuta zituzten pertsonak modu masiboan eta ilegalean kanporatuz”, 100 haur horien artean; horixe adierazi zuten Poloniako gizarte zibileko hainbat erakunde.<sup>52</sup> Polonian familiako kide bat ospitaleratu behar izan zutenean eta gainerakoak Bielorusiara itzularazi aurretik mugako guardiak familiak bereizi zituztela erakusten duten txosten fidagarriak ere badaude; emakume bat, esaterako, bere semearengandik bereizi zuten, 5 urteko haurarengandik.<sup>53</sup> 2021eko irailaren 2an deklaratuak larrialdi-egoerak debekatu egin ziren kazetariei, behatzaileei, gizarte zibileko erakundeei eta iristen ari ziren iheslariak laguntzen ari ziren laguntza-taldeei muga inguruetan sartzea.<sup>54</sup>



Pedro Armestre / Save the Children





Pedro Armestre/Save the Children

2021eko uztailaren 2an, Lituaniak larrialdi-egoera deklaratu zuen, 2.000 iheslari eta asilo-eskatzaile baino gehiago herrialdera sartu zirenean Bielorrusiatik barrena.<sup>55</sup> Ondorenean, Lituaniako Parlamentuak atzerritarren estatutu juridikoari buruzko lege bat onartu zuen, eta “Lituaniar sartzeko baimenik ez zuten pertsonen asilo-eskaerak baztertzeko” erabili zen lege hori; horrez gain, “lurraldera nor sartuko zen erabakitze erabateko askatasuna” eman zien mugako guardiei.<sup>56</sup> Legedia haurrei ere aplikatu zitzaizen berriro ere, salbuespenik gabe. Asiloaren esparruko EBko legedia urratu arren, EBko goi-funtzionarioak mugako hesi bat eraikitze proposamenaren alde agertu ziren, eta Lituaniako gobernuaren ekimena goretsi zuten, “idea ona” iruditzen zitzaizela esanez.<sup>57</sup>

Bielorruasiako mugako egoerak migrazioaren inguruko eztabaida ekarri du berriro ere mahai gainera Europako beste herrialde batzuetan, nagusiki segurtasun nazionalarekin lotuta,<sup>58</sup> eta iheslari eta migratzaileak “instrumentalizatzaera” bideratu da bereziki. Finlandian, mugako prozedura berri bat ezartzeko xedea duen testuinguru baten barnean izan da hori,<sup>59</sup> gobernuak prozedura osotasunean aplikatzeko asmoa baitu 2023an, eta beldur dira horrek ez ote dituen ekarriko mugako atxiloketak, askatasuna gabetzeko antzeko prozedurak eta mugan haur eta familien babes indibidualerako ebaluazio desegokiak.<sup>60</sup>

### “INSTRUMENTALIZAZIOA”

Bielorruasian sortutako egoeraren aurrean izan zen erreakzioak bultzatuta, Europako Batzordeak adierazi zuen ez zuela onartuko “helburu politikoekin migratzaileak instrumentalizatzeko” hirugarren herrialdeek egindako ahaleginik. 2021. urte amaieran, Instrumentalizazio Araudia deritzona proposatzera eraman zuen horrek Europako Batzordea, eta, zehazki, “instrumentalizazioa” definitzea du helburu araudi horrek, zeinaren arabera “artifizialki migrazio irregularra sortzen eta errazten ari diren estatuko eragileek” sortutako egoerak dira, “migrazio-mugimenduak xede politikoetarako tresna gisa erabiliz, Europar Batasuna eta kide diren estatuak ezegonkortzeko”.<sup>61</sup>

Araudian, mekanismo bat jasotzen zen, kide diren estatuei EBko asilo-legedian salbuespenak egiteko aukera emateko. Ironikoki, haur iheslari eta migratzaileen “instrumentalizazioaren” faktore garrantzitsuenetako bat hauxe da: Europako herrialdeek lehentasuna eman diete, kosta ahala kosta, disuasio-neurriei; aukera zabaltzen die horrek herrialdeetako buruzagiei, EBren finantzaketa edo kontzesio politiko batzuk lortzen saiatzeko; edota, politikoki desatsegina denean, Bielorruasiaren kasuan bezala, Europako herrialdeek eta EBk ustez dituzten balioak eta Zuzenbide Estatuarekiko konpromisoa bera ere alde batera utz ditzakete, horri esker. Iheslariei kanpoan eusteko desira nabarmenik ez balitz, beste herrialde horiek ez lukete horrenbesteko eraginik.

**Abdulk\*, Afganistango mutikoak, esan zion Save the Childreni: “Adingabea naizela ziurtatzen duen agiri bat daukat. Ez zidaten onartu. Esan zidaten: “Zu adin nagusikoa zara.”**

Italia eta Frantzia arteko mugan igarobide diren lekuen arabera tratua desberdina ematen dela erakusten duten zuzeneko zenbait frogak bildu ditu Save the Childrenek.<sup>62</sup> Clavieren, adibidez, bidaidetik gabeko adingabeek eta familiarengandik banandutakoek aukera gehiago dituzte Frantziako Mugako Poliziak (PAF) onartuak izateko. Dirudenez, Mentonen, poliziak jaiotzari buruzko datuak aldatzen jarraitzen du, adingabeak adin nagusikotzat hartzeko eta, horrela, *refus d’entrée* edo sarreran baztertzeko aginduaren bidez kanporatzeko.

### UKRAINARI EMANDAKO ERANTZU-NETIK ATERATAKO IKASBIDEAK

Europako mugetako heriotzak, abusuak eta indarkeria endemikoa saihestu daitezke, eta, egiazki, Europako estatuak hartutako aukera politikoaren eta horietako agentzia eta agintariak hartutako erabaki operatiboen emaitza dira. Haurrek eta horien familiek mugak segurtasunez zeharkatu eta nazioarteko babesa lortzeko legezko bideak falta izatea da lekualdaketetako heriotzen faktore nagusia.

Horixe adierazten du, hain zuzen, Ukrainako haurrek EBn segurtasunez sartzeko aukera izateak, EBren

eta Ukrainaren artean bisa-salbuespena izateko egindako akordioari esker; beraz, automatikoki ematen zaie babesa EBn, Aldi Baterako Babeserako Zuzentarauaren bidez. Haurrak babesteak izan du lehentasuna, eta aldaketa handia adierazten du horrek, adingabeen etorreraren aurrean aurrez aipatutako mugako politika murriztaile horien bidez kanpoko mugak “babesteko” erakutsi izan den irrikarekin alderatuta.

Bielorruasiarekiko mugan aurrez aurre asilo eske milako gutxi batzuk zituztenean sarbidea murriztu zuten herrialdeek eurek hartu dituzte Ukrainatik iristen ari ziren pertsona gehien. 2022tik, 8,1 milioi zeharkaldi erregistratu dira mugan, Ukrainaren eta Poloniaren artean, eta 1,5 milioi pertsona baino gehiago erregistratu dira, aldi baterako babesa jasotzeko.<sup>63</sup> 2022ko urrian, Lituaniak 67.000 ukrainiar iheslari inguru sartu dira, eta 2021ean, 2.000 pertsona inguru iritsi zirenean, larrialdi-egoera deklaratu zuen: alde handia dago bi horien artean.

Politika desberdin horien emaitzak begien bistakoak dira. IOMk bidean ziren 17 ukrainarren heriotzak erregistratu ditu.<sup>64</sup> Ukrainatik zetozen 500.000 iheslariko pertsona bat hiltzea adierazi du horrek.

Gainera, Europa osoan zehar Save the Children laguntzen ari zaien ukrainar haurrek ez dute salatu izan poliziak edo mugako agenteek indarkeriaz tratatu dituztenik.



Pedro Armestre/Save the Children

# ZIRKULAZIORAKO MUGAK

**“Esperientzia txarra izan zen, 5 hilabetez egon ginen han janari txarrarekin, txakurrentzako janaria zela ematen zuen, kazetariak etorri ziren eta argazkiak atera zizkiguten. Kartzela bat bezalakoa zen. Eta zikin zegoen.”**

Wiam\*, 17 urtekoa; Kanariar Uharteetako harrera-zentro bateko baldintzak deskribatu dizkigu.

Haur iheslari eta migratzaileen etorrerarekiko disuasio-politikarekin batera, behin iritsitakoan horiek toki batean mantentzeko ahalegina egin da. Testuinguru horretan, funtsezkoak dira EBren barnean gauzatutako zirkulazio-askatasunaren mugak, bai estatu kideen lurraldean bai nagusiki haurrak iristen diren eremu eta herri zehatzetan. Muga horiek, Ukrainako iheslarietarako aplikatzen ez zaizkienak, esan nahi dute haur iheslarietarako eta haien familietarako aukera mugatuak dituztela herrialde batetik bestera mugitzeko, bai eta beren familiekin biltzeko ere; herrialde jakin batzuetan bakarrik eska dezakete asiloa, eta, askotan, oso baldintza kaskarretan edo jasanezinetan egoten dira atxilotuta.

## ZIRKULAZIORAKO MUGAK ETA ATXIKITZEAK HELMUGAKO LEHEN HERRIALDEETAN

Greziar, 2016an EB-Turkia Ituna aplikatzearen ondorioz, Greziako uharteetako hotspot direlakoak (migratzaileak hartzeko eta erregistratzeko zentroak) atxilotze-zentro bihurtu ziren, elorritzako alanbrearekin, hesiekin eta polizia eta militarren zaintzarekin.<sup>65</sup> Politika bideraezin eta anker hori aldatu egin zen 2016ko amaieran, baina horren ordez “mugaketa geografiko sistematikoa ezarri zen, hau da, uhartetik ez irteteko eta zentroetan bizitzeko betebeharrak ezarri zitzaion iristen zen pertsona bakoitzari”,<sup>66</sup> baita haurrei ere. Salbuespen batzuk baino ez zeuden, askotan emaitzarik gabeko prozesu bati hasiera emateko: osasun-arrazoia, bidaidetik gabeko adingabeak izatea eta genero-indarkeriaren biktima izatea. Mugaketa geografikoa betetzen ez duten iheslarietarako atxilotuak izateko arriskua dute, delitu bat leporatuta, eta asiloa eskuratzeko aukera murriztu diezaiekete.<sup>67</sup>

Zirkulaziorako muga horiek dira baldintza okerragoak, pilaketak, zerbitzu desagokiak eta asilo-eskaeren

muturreko moteltasuna izateko arrazoi nagusiak, eta horiek guztiek eragin handia izan dute haurrengan, bai eta bidaidetik gabeko adingabe askorengan ere. 2017an, politika horiek haurren buru-osasunaren duten eragina dokumentatu zuen Save the Childrenen txosten batek: Zarakék\*, Irango bidaidetik gabeko haur batek, honela deskribatu zituen Samosen zituzten baldintzak: “Lau hilabete eta erdi igaro nituen zentroan, kanpin-denda batean. Janaria txarra zen, hango egoera ez zen ona. Beldur nintzen etengabe. Norbaitek zerbait galdetzen zidanean, ezetz esaten nuen beti buruarekin.”<sup>68</sup>

Esparruen egoera, Lesbos uharteko Moriakoa, adibidez, oso kaskarra zen, eta baldintza osasungaitzengatik, pilaketengatik eta haurren aurkako indarkeria-arrisku handiagatik bereizten ziren. Azken urteotan, kanporatze- eta disuasio-politiken ondorioz ekialdeko Egeoko uharteetara iritsitako migratzaileen kopurua gutxitu den heinean, Greziako gobernuaren ahaleginek, EBren finantzaketa jaso dutenek, zirkulaziorako oinarritzeko politikari muga handiak jartzen jarraitu dute. Samos, Kios, Kos, Leros eta Lesbosen, “Sarbidetik Kontrolatutako Zentro Itxi” berriak ireki dira, edo irekitzea aurreikusitako dute; asilo-eskatzaile adingabeak eta helduak hartzen dituzten espetxeen antzeko eremuak dira.

Samosko esparru berria oso babestuta dago: txarrantxazko hiru hesi, altuera handikoak, hainbat zaintza-dorre sekzio guztietan, walkie-talkie bidez komunikatzen diren segurtasun-guardien presentzia handia, abisuetarako megafonia eta kamerak nonahi, baita ostatu-blokeetan ere.

Zentrotik eskolara joateko irteten diren haurrei gorputza eta motxilak miatzen dizkiete, eta X izpiekin aztertzen dituzte eta tornikete magnetikoak ezartzen dizkiete alanbre-hesiz inguratutako kanpamentutik irteteko eta hara itzultzeko. 2021ean, Ammar\* Siriako 16 urteko gazteak Iheslarien Kontseilu Greziarrari (Save the Childrenen bazkidea da) kontatu zion ez zela eskolara joan 2019an Samosera iritsi zenetik. Gainera, adierazi zuen baldintzak hobeak direla Sarbidetik Kontrolatutako Zentro Itxian uharteko aurreko esparruan baino: “esparru berrian, gure edukiontzian esertzen naiz edo familiarentzako janari bila joaten naiz, paseoan ibiltzen naiz, ez dut ezer zehatzik egiten...”<sup>69</sup> Vathy hiri

nagusitik urrun dago, duela gutxi autobus linea bat jarri dute, baina garestia da, eskuraezina esparruko biztanleentzat; horren ondorioz, haurrak eta familiak are bakartuago bizi dira zentroan.

Italian, egoera asko aldatzen da lehorreratze-leku batetik bestera. Calabriar eta Siziliako zenbait lekutan, Messinan esaterako, migratzaileek eta iheslarietarako zentroetatik alde egin dezakete lehorreratu eta ordu gutxira. Lampedusan, ordea, oso egoera militarizatua aurkitzen dute. Mugimendu guztiak, lehorreratzeko zentrorako eraman arte, edo geroko kontinenterako bidaia, guardiek gertutik kontrolatzen dituzte.

Zentroa hesiz inguratuta dago, eta polizia eta armadak kontrolatzen dituzte sarrera eta irteera guztiak.

Lituanian, Bielorrusiatik Lituaniara igarotzea lortu zuten haurrak sistematikoki atxilotu dituzte, abokatuak izateko aukera ukatu diete eta tratu txarrak jasan dituzte. Amnesty Internationalek arabera, 2022ko ekainean, Lituaniar atxilotutako 2.647 pertsonatik, 592 haurrak ziren. Erakunde horrek tratu arrazistak ere salatzen zituen: “emakume beltzak eta nerabeak torturatu egin zituzten, eta sexu-umiliazioa jasan zuten”.<sup>70</sup>

## ASILOARI ETA MIGRAZIOARI BURUZKO EB-REN ITUNA

2020ko irailean, Europako Batzordeak “Migrazioari eta Asiloari buruzko Ituna” proposatu zuen, legegintzako bost tresnaz osatutako sorta bat, honako hauek hartzen dituena barnean: hautaketa, asilo-prozedurak, Eurodac asiloari eta migrazioari buruzko datu-base bihurtzea, asiloaren eta migrazioaren kudeaketa, eta krisi-erregelamendu bat; horrez gain, bilaketei eta erreskateari eta baimenik gabe iritsitako pertsonak berriro finkatzeari, prestakuntzari eta sarrera horietarako errazteari buruzko gomendioak eta orientazioak ere jasotzen ditu.<sup>71</sup> 2022ko irailean, Europako Parlamentuak eta EBko txandakako bost lehendakarietarako “ibilbide-orri” bat adostu zuten, Itunari EBko 2024ko hauteskundeetan aurretik amaiera emateko.<sup>72</sup>

Proposatutako ituna EBko kanpo-mugetako zirkulazioa mugatzean oinarritzen da orain ere. Asilo Prozedurei buruzko Araudiak Europako mugetako prozedura bateratua ezartzen du kanpoko mugetara iritsi eta EBko estatu kide batean nazioarteko babesa eskatzen duten hirugarren herrialdeetako herritarrentzat.<sup>73</sup>

Proposatutako prozedura azkarrek adingabeen etengabeko atxilotzea eta zirkulazio-askatasuna mugatzea eragiteko arriskua dute, eta horrek eragina du arreta, hezkuntza eta osasun-zerbitzu egokiak eskuratzeko orduan. Zehazki, araudi horrek asilo- edo itzulketa-prozedura bat ezarriko luke mugan, eta horrek bidea irekiko luke 12 urtetik gorako haurrak dituzten familiei hamar hilabetera arteko atxilotze-prozedurak ezartzeko. Araudiaren arabera, haur horietarako prozedura “azkar” baten mende gera daitezke.

Hautatzeko Araudiaren proposamenak mugetan asiloa eskatzen dutenentzako hasierako harremana eta eskaera hori izapidetzeko modua arautzen ditu. Proposamenek “fikzio legal” bat (sartu ez direla ulertzen da horren bidez) sortzea jasotzen dute, eta horrek esan nahi du hirugarren herrialde bateko herritar bat estatuan sartu dela onartzeko, horretarako baimendutako mugako agenteek legez onartu behar dutela, baita EBn dagoenean ere. Horrek lekualdatzen diren haurren eskubideak mugatu ditzaketen joan-etorrietarako eremuak sortzeko arriskua dakar berarekin, edo haurrak atxilotzeko edo atxikitzeko arriskua.<sup>74</sup> Ez asilo-prozedurak ez Hautatzeko Araudiak ez dute giza eskubideak (haurren eskubideak barne) errespetatzen direla bermatzeko babes eta prozedura egokirik.

Asiloa eta Migrazioa Kudeatzeko Araudiak (AMR) elkartasunerako eta estatu kideen artean erantzukizunak banatzeko sistema berri bat ezarri nahi du estatu kideen artean, asilo-eskatzaileen erantzukizuna kideen artean modu bidezkoagoan banatzen dela bermatzeko. Garai bateko “Dublingo sistema” ordezkatzeko luke horrek. Sistema horrek botila-lepoak sortzen zituen EBko kanpo-mugetatik gertu, eta adingabeen bigarren mailako mugimenduak mugatzen zituen, “helmugako lehen herrialdea” irizpidea azpimarratuta. Ez da alde batera utzi behar erantzukizunen banaketari buruzko arauak berridazteko aukera. Egungo sistema hobetzea funtsezkoa da haur gehiagoren sufrimendua saihesteko eta EBren barruan salerosketa- eta esplotazio-arriskua murrizteko, bereziki barneko mugetan.



Pedro Armestre/Save the Children

Ceutara eta Melillara (Afrikako kontinentean kokatutako bi lurralde espainiar) iristen diren haur iheslarien eta migratzaileen zirkulazioa ere oso mugatuta dago. Agintariek aplikatutako araudiaren arabera, asilo-eskatzaileek beren eskaera onargarria den erabaki arte itxaron behar dute penintsulara eta asiloa eskatzeko sistemara igaro aurretik, eta, gainera, Polizia Nazionalaren baimena lortu behar dute. Espainiako lurraldean askatasunez zirkulatzeko eskubideari jarritako muga horiek legez kanpokotzat jo izan dira behin baino gehiagotan Espainiako auzitegietan, baina, praktikan, mantendu egiten dira.

Egeoko uharteetan gertatu den bezala, muga horiek pilaketa larria eragin dute aldizka, eta horrek asilo-eskatzaileak eta migratzaileak hartzeko baldintza prekarioak edo eskasak ekarri ditu, baita emakumeak eta haurrak indarkeriaren eta esplotazioaren eraginpean egotea ere.<sup>75</sup> 2021eko maiatzean, Ceutan ehunka pertsona bat-batean eta kontrolrik gabe sartu zirenez, harrera-zentroak berehala kolapsatu ziren, eta, hasieran, haurrei eta helduei Tarajaleko mugatik gertu eman zieten ostatu, adingabeentzako behar adina ohe eta arropa edo mantarik gabe, eta komunak ere hondatuta zeuden eta janari eskasia zuten.

Ceutako hiriak bidaidetik gabeko adingabeak hartzeko zentroak ireki ditu, 2021eko maiatzean hara iritsi ondoren.

Une jakin batzuetan, 1.000 haur baino gehiago hartu dituzte hiru zentrotan (Tarajal, Piniers eta Santa Amelia), baina ez da toki gehiagorik prestatu eta ez dira penintsulara bideratu. Zenbait txostenek egiaztatu dute haur batzuk basoetan ezkututzen direla edo hasierako harreratik ihes egiten dutela, Marokora eramango dituzten beldurrez.

## ZIRKULAZIORAKO MUGAK BESTE HERRIALDE BATZUETAN

Zirkulaziorako mugak eta pertsonen asilo-eskaerak non erregistratu ditzaketen inguruko araudiak ere pilaketak eragin dituzte baita ere EBra sartzeko herrialde nagusi ez diren herrialdeetan. Herbehereetan, asilo-eskatzaileek herrialdearen iparraldean eta biztanle-guneetatik urrun kokatutako Ter Apel izeneko leku batean erregistratu behar dute. 2022ko abuztuan, zentroa gainezka zegoen, eta 700 pertsonak kanpoan lo egin behar izan zuten, baita haurrek ere.

Urrian, Osasun eta Gazteen Arretarako Ikuskaritzaren arabera, Ter Apel-ek "pertsona kopuru handia hartu zuen, oso gazteak zein adinekoak, eta batzuek hotzeria edo beste gaixotasun batzuk zituzten; kiroldegian elkarrekin zeuden guztiak, eta leku txikiegia eta hotzegia zen, eta aire-korronteak zituen";<sup>76</sup> bestalde, adierazi zuen osasun-arriskuak larriagoak zirela ahulmentzat, haurtxoentzat eta haur txikientzat, esaterako.<sup>77</sup> Guztira, iheslarien harreraz arduratzen den agentziak (COA) 350 haur hartu zituen, "ostatu-baldintza penagarrietan", 55 haurrentzat soilik baitzegoen tokia, eta haur askok aukietan edo lurrean lo egin behar izan zuten zenbait egunetan.

Adingabeen Defendatzailearen arabera (apirilean bisitatu zuen zentroa), "ez dago ez hezkuntzarik, ez jarduerarik, ez laguntzarik, ez ezer... [haurrek] janaria jasotzen dute, besterik ez. Langileek esan zidaten askotan ez dituztela goizean haurrak esnatzen, ez dutelako egiteko ezer."<sup>78</sup>

Alemanian, asilo-eskatzaileek bizileku-baimena dutenean, eskatzailea harrera-zentroa dagoen lurralde-barrutira mugatuta dago. Gelditzeko aukera gutxi dutenak harrera-zentroetan bizitzera behartuta daude, haien egoerari buruzko erabakia hartu arte; hasiera batean geratzeko aukera gehiago dutenak,

berriz, bizileku-baimenean zehaztutako eremuan soilik egon daitezke, eta baimena behar dute eremu horretatik denbora batez alde egiteko.<sup>79</sup> Betebehar hori hiru hilabeteren buruan aplikatzeari uzten zaie, eta, orduan, herrialde osora zabaltzen da.

## ZIRKULAZIORAKO MUGAK EB-KO HERRIALDEEN ARTEAN

EBren barruan, muga handiak ezartzen zaizkio bigarren mailako zirkulazioari, eta "asiloko lehen herrialdea" azpimarratzen da; horrek presio handia sortu du mugako herrialdeetan, eta erantzukizuna ez da berdina Europako herrialdeetan asiloa eskatzen dutenentzat.

Gainera, bai Dublingo Araudiaren arabera, bai familiak bateratzeko hirugarren herrialdeekin bideratutako prozedura arruntan esparruan, familia berriro elkartzea gero eta erronka handiagoa da haurrentzat. 2019an, Alemaniako Gobernuak atzera bota zituen Greziatik familiak berriro elkartzeko egindako eskaeren % 70 inguru, Dublingo Araudiari jarraituz, adibidez. Oztopo nagusien artean, honako hauek ditugu: familia berriz elkartzea eskatzeko epe laburrak, diru-sarreraren oso baldintza altuak eta familia-harremanak frogatzeko modu korapilatsu eta garestiak, hala nola DNA probak.

Zenbait herrialdetan, hala nola Grezian, Italian eta Espainian, itxaronaldiak luzeak izan daitezke, urte askotakoak, eta haurren salerosketa- eta esplotazio-arriskua areagotzen du horrek, beren kabuz familiekin elkartzen saiatzen direnean.<sup>80</sup>

Ukrainako haurrek ez diete horrelako erronkei aurre egin behar izan. Italian, Save the Childrenek ikusi du auzitegiek aukera eman dutela Italian bidaidetik gabe dauden adingabeak eta EBko beste estatu kide batzuetan bizi diren senideak elkartzeko, eta adingabeak herrialdera iritsi eta egun gutxiren buruan egin dute hori. Aitzitik, beste herrialde batzuetako bidaidetik gabeko haurren kasuan, Italian edo EBko beste herrialde batzuetan senideak dituztenean, senideekin elkartzeko prozedurak abiarazi behar dituzte, eta urtebete edo gehiago behar izaten dute prozedura horiek amaitzeko.

**Zenbait herrialdetan, hala nola Grezian, Italian eta Espainian, itxaronaldiak luzeak izan daitezke, urte askotakoak, eta haurren salerosketa- eta esplotazio-arriskua areagotzen du horrek, beren kabuz familiekin elkartzen saiatzen direnean.**

Firasek\*, Afganistangoak, 17 urte zituen Greziara iritsi zenean, eta 5 eguneko bidaiara egin zuen gero polizoi gisa, Errumaniara zihoan kamioi batean. Iritsi zenean, asiloa eskatu zuen. Eta hauxe esan zuen: "Ezin nuen poliziekin hitz egin, inork ez zuelako ingelesez hitz egiten. Azkenean, aurkitu zuten ingelesez zekien norbait. Adingabeak babesteko agintaritzara deitu zuten, eta kanpamentu batera eramanez ninduten. Adingabeentzako kanpamentu edo zentro batera joatea eskatu nien, baina ezetz esan zidaten. Helduak eta bidaidetik gabeko haurrak zituen kanpamentu batean egon nintzen."

Adingabeen babeserako agintari nazionalak pertsona bat izendatu zuten ni zaintzeko, baina pertsona hori ez zen nitaz arduratzen. Ospitalean egin nuen astebete, bihotzeko arazo bat neukalako, eta ez zen behin ere etorri ospitalera ni bisitatzera.

Kanpamentuan nengoenean, eskolan izena emateko eskatu nuen. Errumaniera ikasten ari nintzen ordurako, baina errumaniar eskola batera joan nahi nuen. Eskumena zuten agintariengana joateko esan zidaten, eta horixe egin nuen. Behar zituzten agiri guztiak eman nizekien, Afganistango eskola-diplomak barne, eta noiz hasi nintekeen esateko zain egon nintzen. Hilabetez, sei hilabetez, urtebetez. Ez zidaten inoiz erantzun. Deitu eta zer gertatzen zen galdetu nienean, esan zidaten ez zituztela aurkitzen aurkeztu nituen agiriak, eta, aurkitzen zituztenean, nire eskaera izapidetuko zutela. Ez zidaten berriro deitu, eta orain, galdu egin ditut Afganistango jatorrizko diplomak.

Urtebetez egon nintzen kanpamentuan, 18 urte bete arte. Oso zikin zegoen. Bidaidetik gabeko beste hiru adingabekin batera nengoen logelan. Ez nuen kanpamentua atsegin, batzuk mozkortu egiten zirelako eta liskar asko sortzen zituztelako. Gainera, 18 urte bete nituenean, ordaindu egin behar izan nuen kanpamentuan gelditu ahal izateko."



Paul Wu / Save the Children

## ERANTZUKIZUNEN BANAKETA DESEGOKIA

EBko estatu kideen artean “erantzukizunak banatzeko” ahaleginak zatika egin dira, edo porrot egin dute erabat. 2015ean, Europako Kontseiluak bi erabaki hartu zituen, Greziatik etorritako 66.400 pertsona (160.000 ziren guztira) birkokatze “aldi baterako eta salbuespeneko birkokatze-mekanismo bat” ezartzeko. Estatu kideek ez zuten oso jarrera egokia agertu nahitaez birkokatze plan horren aurrean, eta ez zuten bete, eta 21.000 pertsona baino ez ziren mugitu Greziatik, plana 2016an amaitu baino lehen.<sup>81</sup>

Plan horrek porrot egin ondoren, EBko estatu kide batzuek eta Europako Batzordeak iheslarien eta asilo-eskatzailen birkokatzea bermatzeko ahalegina egiten jarraitu dute, bereziki pertsona zaugarrien eta bidaiderik gabeko adingabeen kasuetan. Hainbat herrialdek, hala nola Frantziak, Finlandiak, Portugalek, Luxenburgok eta Alemaniak, aldebiko akordioak egin zituzten Greziarekin, asilo-eskatzailak birkokatze.<sup>82</sup> Guztira, 4.401 pertsona, tartean bidaiderik gabeko 1.028 adingabe, birkokatu zituzten 2021eko urria baino lehen, hau da, planaren epemuga baino lehen.

Birkokatzei buruzko akordioak, bereziki haur zaugarriei dagozkienak, ongi etorriak dira. Milaka haurren kasuan, beren bizitzak herrialde berrietan eraikitze aukera eman diete. Baina behin baino gehiagotan ikusi da akordio horiek ahulak direla eta presio eta jarrera politikoen xede direla.

2022ko ekainean, Frantziako Presidentetzak borondatezko elkatasun-mekanismo bat txertatu zuen, “bilaketa- eta salbamendu-operazioen ondoren lehorreratzeei aurre egin behar dieten” estatu kideei laguntzeko.<sup>83</sup> 2022ko abenduan, guztira 8.000 asilo-eskatzaila tokialdatzeko konpromisoa hartu arren, EBko estatu kideek 117 soilik tokialdatu zituzten.<sup>84</sup> Italiak

itsasoan 234 pertsona (horien artean 57 haur) jaso zituzten ontziei lehorreratzeko ez uztea erabaki eta gero, Frantziak, ontziei lehorreratzeko baimena eman ondoren, adierazi zuen “birkokatze guztiak etengo zituela [...] eta gauza bera egiteko eskatu zien EBko programan parte hartzen zuten gainerako guztiei, bereziki Alemaniari”.<sup>85</sup>

## UKRAINARI EMANDAKO ERANTZUKIZUNEN ATERATAKO IKASBIDEAK

Bisa salbuesteko akordioari eta Aldi Baterako Babeserako Zuzentarauak ematen dien babesari esker, Ukrainako iheslariak ez zaizkie Dublingo Araudiaren mugak ezarri, eta askatasunez aukeratu ahal izan dute zein herrialdetara joan nahi zuten. Ukrainako iheslariak mugak zeharkatzea ez da mehatxutzat hartu, eta, beraz, estatu kideek ez dute modu aktiboan eragotzi. Estatu kideek erantzukizunaren banaketari buruzko eztabaidak egin badituzte ere, haien helburu nagusia harrera koordinatzea eta ostatua emateko zailtasunak zituzten herrialdeei laguntzeko irtenbideak ematea zen.<sup>86</sup>

Ukrainatik etorritako iheslarien kasuak erakutsi du bigarren mailako mugimenduek ez dutela kudeatu ezinezko egoera bat sortzen. Aitzitik, zirkulazio-askatasunak eta erregistro azkarra egiteak asilo-sistemaren gaineko presioa murriztea ahalbidetu dute. Eta are garrantzitsuagoa dena, non bizi aukeratu ahal izateak lagundu egiten die asilo-eskatzaila zuzenean senideez aparte ezagutzen dituzten pertsonengandik hurbil egoten, hizkuntza ezagutzen duten lekuetan agian, eta haurrak eskolak dauden lekuetan bizitzeko aukera izan dute. Horrek handitu egiten ditu aukerak haur harrera-gizartearen arrakastaz integratzeko aukerak.

# BABESAREN MUGAK ETA HORREK HAURREN ZERBITZUETAN DUEN ERAGINA

*“Orain, ez daukagu ez etxerik eta ez dirurik, eta horixe da nire kezkarik handiena. Egun batzuetan bizitzeko toki bat bilatu, eta, gero, beste toki batera joan behar izaten dugu.”*

Marie\*, 11 urtekoa; Kongoko Errepublika Demokratikokoa da, eta Grezian bizi da orain

*“Tokiz aldatzen zaren bakoitzean gutxiago ikasten duzu, eta zaila da ikastetxe berri batean besteen eritmoari jarraitzea. Askotan joan naiz toki batetik bestera, eta ez dut izan denborarik eskolara joateko, bizi izan naizen hiri guztietan. Urte osoa galdu nuen.”*

Anna\*, 10 urtekoa, siriarra; Suedian bizi da duela 8 urtetik

Haurrek Europako asilo-sistematan sartzea lortzen dutenean ere, gero eta gutxiagok lortzen dute iheslarien estatusa. Gainera, haurrek eta haien familiek babes eskuratzeko dituzten zailtasunek murriztu egiten dute eskubidez dagozkien zerbitzuak eskatzeko eskubidea, eta haien heziketa zailtzen dute. Finlandiak, Suediak, Norvegiak, Danimarkak, Alemaniak eta beste herrialde batzuek ere beste murrizketa batzuk ezarri dituzte, hala nola diru-sarrera handiak izatea edo integrazio-baldintza batzuk betetzea, eta horrek berak ere zaildu egin die adingabeei asiloa lortzeko bidea, familiarekin elkartzea eta beren baimenak berritzea.<sup>87</sup>

Iaz, Danimarkako gobernuak Siriatic zetozen iheslari batzuen bizileku-baimenak baliogabetzen hasi zen, Siriara itzultzea behartzeko asmoz.<sup>88</sup> 2022ko abenduan jakin zen immigrazio-zerbitzua gutunak bidaltzen ari zitzaiela haur iheslariak, baita bizitza gehiena Danimarkan eman zuten haurrei ere, alde egitera animatuz, honelakoak esanez: “Ez baduzu zure borondatez alde egiten, behartuta bidal zaitzakegu Siriara.”<sup>89</sup> Siriako iheslari batzuei eman zitzaizkien aldi baterako bizileku-baimenak herrialdeko segurtasun-egoera orokorrekin lotuta daude, eta ez iheslarien inguruabarrekin, itzultzen diren iheslariak jasaten dituzten arriskuak nabariak izan arren.<sup>90</sup>

Garrantzitsua da azpimarratzea ukrainarrak, Ukrainatik etorritako pertsonen buruzko Lege Bereziaren arabera bizileku-baimenak ematen zaizkienak, ez liratekeela nahitaez iheslari izango Danimarkan, Ukrainako zati bat nahikoa segurutzat joko litzatekeelako, iheslariak buruzko legeria nazionalaren arabera.<sup>91</sup>

2021eko ekainean, Greziako Ministerioaren Erabaki Bateratu batek are gehiago murriztu zuen asilo-eskubidea, Turkia “hirugarren herrialde segurutzat” jo baitzuen Afganistan, Bangladesh, Pakistan, Somalia eta Siriatic zetozen pertsonentzat.<sup>92</sup>

Gainera, 2021eko zati handi batean, Grezia kontinentalean asiloa eskatzeko sistemak ez zuten funtzionatu. Greziara iritsi ziren eta lehen harrerako prozeduretatik igaro ez ziren edo polizia atxilotu ez zituen asilo-eskatzaila guztiek ezin zuten asilo-eskaera erregistratu, besterik gabe. Gerora asilo-eskaera bat erregistratu nahi zuten pertsonentzako prozedura ere korapilatsua zen, Skype bidez hitzordu bat hitzartzea eskatzen baitzitzaie, eta sistema horrek ez zuen ia inoiz funtzionatu. Batez beste, pertsonak 14 hilabetez saiatu ziren hitzordua hitzartzen.<sup>93</sup> Eta kezagarria da, izan ere, asilo-eskatzaila txartelik ez duten pertsonen osasun-sistemarako sarbide mugatua dute, eta legezko estatusik ez izateak oztopoak sortzen ditu haurrak herrialdeko hezkuntza-sisteman sartzeko.<sup>94</sup> Era berean, Espainian, familiek zailtasunak dituzte asiloa eskuratzeko sistema disfuntzional batean sartzeko, eta zerbitzuak ukatzea eta etxerik gabe gelditzea ekarri du horrek.<sup>95</sup>

EBkoak ez diren herrialdeetan, Serbian esaterako, erronka garrantzitsuenak asilo-prozeduraren iraupena, emaitzaren inguruko ziurgabetasuna<sup>96</sup> eta babes lortzen duten asilo-eskatzailen ehuneko txikia dira. Sistemaren akatsen artean –urteak daramatzate akats horiek konpondu gabe–, lan-baimena lortzeko epe luzea (asilo-eskaera aurkeztu eta bederatzita hilabetera) eta asiloa jasotzen dutenentzako bidaia-dokumentu baliagarriak eza daude.<sup>97</sup>



Oksana Pajaniuk / Save the Children

**Prozesu erraz bat izateak esan nahi du Ukrainako hurrek azkarrago eskura ditzatekela etxebizitza, hezkuntza, zerbitzuak eta EBn jarraitzeko dokumentuak, eta horrek eragin positiboa du harrera-komunitatean integratzeko orduan.**

Espainiak, Finlandiak eta beste herrialde batzuek antzeko prozedurak ezarri zituzten erregistroa arintzeko.

**Ukrainako iheslarientzako irtenbide politiko eta ohitura berriak, zerbitzuak eskuratzeari dagokionez.**

Gobernuek berehala handitu dute harrera-gaitasuna, Ukrainatik datozenak hartzeko aukera areagotzeko. Finlandiak, adibidez, harrera-zentroen kopurua 20tik 92ra handitu zuen, eta bidaidetik gabeko eta familietatik banandutako adingabeentzako unitate gehigarri bat ere sortu zuen.

Gobernu nazionalak ere xedapen berezi batzuk txertatu dituzte Ukrainako iheslarientzat. Xedapen horien ondorioz, laguntza handiagoa eman zitzaion haurrei, eta oso eragin positiboa izan zuen horrek Europar Batasunean izandako esperientzian.<sup>99</sup>

- **Doako zerbitzu osagarriak**  
Hainbat herrialdek aukera eman diete ukrainarrei garraio publikoa doan erabiltzeko eta museo eta aisialdiko instalazio batzuetara sartzeko.<sup>100</sup>
- **Laguntza finantzario handiagoa**  
Herrialde batzuek eskudirutan ematen diete laguntza ukrainarrei, eta haurrentzako diru kopuru bat ematen diete. Italian, Italiako Babes Zibilak ordenantza bat argitaratu zuen, eta, horren bidez, hilean 300 euro (gehi 150 euro osagarri adingabe bakoitzeko) ematen zizkioten harrera-zentro batean ostatu hartuta ez zegoen familia ukrainar bakoitzari. Espainian, gobernuak dekretu bat eman zuen, eta 400 euroko laguntza aurreikusten du familia ukrainar zaurgarrientzat, eta 100 euro gehiago hilean adingabe bakoitzeko; ukrainar asko ostatu pribatuetan bizi direla aitortzen du horrela. Beste herrialde batzuek aldatu egin zituzten aurreko politikak, familia ukrainarrek laguntza ekonomikoa jaso ahal izateko.

Gurasoei lan egiteko garaian ezartzen zaizkien murrizketek eta bizileku-baimenak jasotzeko itxaronaldi luzeak eragin nabarmena dute haurrengan. Edvin\*, 15 urteko etiopiarra, duela 3 urte iritsi zen Suediara, eta kontatzen du ama bizileku-baimenaren zain dagoela eta ezin duela lanik egin. "Etxean gelditzen da beti, irten gabe. Desastre hutsa da. Zaila da. Asko estresatzen naiz." Foku-taldearen eztabaida berean, Emma\*, 12 urteko afganiarra, familiarekin batera Suediara duela 7 urte iritsitakoa, ados agertu zuen: "Zer egin behar duzu egun osoan etxean? Eseri, jan eta lo egin, edo zer? Zergatik ezin zara lanera joan?"

## UKRAINARI EMANDAKO ERANTZU-NETIK ATERATAKO IKASBIDEAK

### Sarbidetza babes-zerbitzuetara

Aldi Baterako Babeserako Zuzendarauaren arabera babesa eskatzea erraza da ukrainar guztientzat, eta gobernuek ahalegin handiagoak egin dituzte hori arazorik gabe egiten dela bermatzeko.

Norwegian, adibidez, polizia arduratzen da Ukrainako iheslariak erregistratzeaz, eta prozedura "sinplifikatu" bat ezarri zen: nortasun-agiriaren kontrola eta elkarrizketa labur bat. Normalean, Norvegiara iristen diren asilo-eskatzaile guztiek Osloko kanpoaldean dagoen harrera-zentro nazionalen erregistratu behar dute. Ukrainako iheslariak azkarrago erregistratzeko, orain Norvegiako tokiko hainbat polizia-etxetan egin daiteke.<sup>98</sup>

- **Argitasun politikoa eta orientazioa ematea haurren babesari buruz:**

Espainian, Gizarte Eskubideetako Ministerioak eta eskualdeko agintariek berehala eman zituzten Ukrainako haurren babesari buruzko gomendioak, honako hauek bermatzeko: haurrentzako espazio abegikorrek egotea, familien banaketa saihestea eta haurren kokapena kontrolpean egotea. Autonomia erkidegoetako fiskalen jarduteko irizpideak bateratzea izan da Adingabeen Fiskaltzaren gomendioen helburua, bidaidetik gabe eta familietatik bananduta dauden adingabeak babesteko. Fiskaltzaren jarraibide nagusiei esker, Ukrainako adingabeen kasuan ez zen banaketa sistematorik gertatu, eta fiskalek arreta handiagoa jarri zuten adingabeak bidaidetik gabek zireneko edo bananduta zeudeneko erregistratzeko orduan.

Italiako gobernuak komisario ordezkari bat izendatu zuen, eta Ukrainatik bidaidetik gabe iritsitako adingabeen harreran inplikaturako erakunde instituzionalen jarduerak definitzeko eta koordinatzeko plan baten lanketan parte hartu zuen, interesaturako aldeekin lankidetzan estuan.

- **Harrera egiteko eta ostatu emateko politikak egokitzea**  
Finlandian, Finlandiako Immigrazio Zerbitzuak udal-eredu bat sortu zuen ostatu-zerbitzuetarako. Eredu horren arabera, Ukrainatik ihes egin duten pertsonen ostatu-zerbitzuak jaso ditzakete udal-erri batetik, udal-erri horretan harrera-zentrorik ez egon arren.<sup>101</sup> Eredu horrek aukera ematen die iritsi berri diren pertsonen

beren familia, lagunak, lana edo bestelako loturak dituzten lekuetan bizitzeko.

Norwegian, gobernuak politikak egokitu ditu, udal-erri malgutasun handiagoa emateko eta Ukrainako iheslariei ostatu berean kabuz aurkitzeko aukera emateko, harrera-zentroetan edo udal-erriak esleitutako etxebizitzetan bizi beharrean. Ostatu pribatua aukeratzen duten Ukrainako iheslariek ere eskubidea dute estatuaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak jasotzeko, baina lehenago ez zen horrelakorik gertatzen beste herrialde batzuetako iheslariekin.<sup>102</sup>

- **Hezkuntza-gaitasuna handitzea eta politika egokitzea**

Poloniak eta beste herrialde batzuek ahalegin handiak egin dituzte eskola nazionalen iheslari adingabe ugari onartzeko.<sup>103</sup>

Espainiako Hezkuntza Ministerioak Kontingentzia Plan bat onartu zuen baita ere Ukrainako ikasleak eskolatzeko. Plan horrek hizkuntza-murgilketako eskolen kopurua handitu zuen, adingabeen berehalako matrikulazioa egiteko aukera eman zuen, eta dirulaguntzak eman zituen ukrainar jatorriko edo ukrainar ezagutzen zuten langileak kontratatzeko.

Halaber, indarrean dagoen politikan aldaketak egin dira baita ere, Ukrainako hurrek eskolan jarraitu ahal izan dezaten. Danimarkan, adibidez, gobernuak salbuespen berezi bat eman zuen Ukrainako hurrek eskolak ingelesez edo ukrainaraz jaso ahal izateko, irakaskuntzako hizkuntza nagusia daniarra izateko baldintzatik salbuetsita.



Anna Pantella / Save the Children

### • Herritarren elkartasuna sustatzea

Behin eta berriz azpimarratu da Europako herrialdeetako herritarrek Ukrainako iheslariekiko erakutsitako elkartasun handia. Hala ere, argi dago elkartasun hori sustatu eta onartu egiten dela, baina ez da berdin jokatzeko iheslari guztiekin. Danimarkan eta Italian, adibidez, partikularrei aukera eman zaie Ukrainako iheslariei beren etxeak irekitzeko, eta hala eginez gero, laguntza ekonomiko publikoak jaso ditzakete. Ez da gauza bera gertatzen beste herrialde batzuetako iheslariek. <sup>104</sup> Finlandian, enpresa handi batzuetako kontratazio-prozedurak Ukrainako iheslariei lana ematera zuzendu dira. <sup>105</sup>


### UKRAINAKO IHESLARIEI EMANDAKO LEHENTASUNA

Ukrainako adingabeko iheslarientzako zerbitzuak eta ekimen bereziak zabaltzeaz harro egon beharko lukete Europako gobernuek, EBk eta Europako herritarrek. Kasu kopuru mugatu batean, ordea, beste herrialde batzuetako iheslarien kontura edo horiek ekimenetatik kanpo uztearen kontura gertatu da hori zuzenean.

Alemaniko Save the Childrenek hainbat informazio jaso zuen ostatu publikoetan bizi ziren hainbat familiei buruz: etxebizitza utzi behar zutela jakinarazi zieten, Ukrainatik zetozen iheslari berriei tokia egiteko. Alemaniko agintarien planifikazio txarraren ondorio da hori. Prentsaren arabera, gainerako iheslarien desplazamendu horren eta ukrainarrei emandako lehentasun horren ondorioz, “hainbat haur beren eskoletatik urrun zeuden lekuetara eramane zituzten.” <sup>106</sup> Grezian, martxoan, Grezia iparraldeko Serresko kanpamentuko iheslariek beren bizileku ziren edukiontzia uztera eta kanpamentuaren eremu okerrago batera joatera behartu zituztela zioten informazioak zabaldu ziren, ukrainar iritsi berriei tokia egiteko. <sup>107</sup>

Harrera egiteko garaian ere beste desberdintasun sotilago batzuk hautematen dira. Herbehereetan Ukrainako iheslariei zuzendutako hainbat harrerazentrotan, adibidez, etxeko maskotak ongi etorriak dira, eta maskotak dituzten ukrainarrak zentro horietara bideratzen dituzte, ahal den neurrian. <sup>108</sup> Beste iheslari eta asilo-eskatzaile batzuek debekatuta dute etxeko animaliak eta maskotak edukitzea, zerbitzuko animaliak izan ezik, hala nola txakur gidariak. <sup>109</sup>

Gobernuko funtsek edo tokiko agintariak bultzatutako integrazio- eta gizarteratze-proiektuak Ukrainako iheslarientzat baino ez dira. Iheslariei zuzendutako proiektu orokorretarako finantzaketa eskatzen duten erakundeek dirua jaso ahal izateko, Ukrainako iheslariak aipatu behar dituzte edo zerbitzuak haiengana zuzendu behar dira nolabait.



Lewis Khan / Save the Children

### Omarren historia\*

Omarrek 17 urte ditu, Siriakoa da, eta 9 urterekin iritsi zen Suediara. Ihes egin aurreko bere bizitzaren errealitatea eta Suediara egindako bidaia deskribatu zizkion Save the Childreni.

Dentistarenera azterketa bat egitera joan zela gogoratzen zuen, “edozein haurrek egiten duen bezala”, baina orduko hartan “soldadu bat sartu zen dentistarenera... Zur eta lur geratu nintzen. Ezin nintzen mugitu. Armak niregana zuzendu zituzten. Ahoa zabalik nuen etorri baino 10 minutu lehenagotik, eta dentista txantxetan aritu zen horrekin. Ezin nuen ahoa itxi. Egia esan, arraro samarra izan zen. Haietako batek pistola bat jarri zidan ahoan, eta beste batek AK47 bat zuzendu zuen nire burura. Nola prozesatuko du hori ume txiki batek? Xokean nengo. Ez nuen negarrik egin. Ezin izan nuen. Joan ondoren ere, ezin izan nuen ahoa itxi egun osoan”.

Beste batean, ikastetxean: “Bonba bat entzun genuen. Ez zen bonba arrunta, suziria baizik. Imajina ezazu suziri bat ikastetxeko jolastokiaren erdian. Eta jolastokia ikastetxearen erdian dago, beraz, ezin zara irten. Lehenengo bonba eskolatik urrunago erori zen, eta mahai azpian sartu ginen. Hiru bat minutu igaro ondoren, bonba bat erori zen ikastetxeko jolastokian”.

Omarren familiak ihes egitea erabaki zuen. Aita eta anaia gaztea Libiara joan ziren, Europara igarotzen saiatzeko. Hil egingo ote ziren beldur zela gogoratzen du: “18 egun behar izan zituzten Libiatik Italiara iristeko. Ez nekien zer gertatu zitzaien. Libiatik irten eta itsasoan zeudela jakin genuen. Handik denbora batera, aitak deitu zidan, eta esan zuen: bizirik iritea lortu dugu. Orain Italian gaude”. Poztu egiten zara, baina ez hori bakarrik. Oso sentipen bitxia da”.

“Nire aita Italian egon zen lehenengo, eta Suediara etorri zen gero. Iristeko denbora asko beharko genuela esan ziguten. 2-3 urte inguru. Ezetz pentsatu genuen, bide bera hartuko genuela, baina Turkian barrena. Zaila izan zen arrisku hori hartzea, saiatu behar genuela erabakitzea. Oso zaila”.

Omarren eta bere familiaren bidaia luzea eta arriskutsua izan zen. Lehenengo kontrol militarrean gelditu zituzten, eta jipoitu egin zuten. Bere familia zihoan autoa tirokatu egin zuten: “Tiro egin zigutenez ez dute pentsatzen. Haurrik ba al dago? Adineko pertsonarik ba al dago? Ez dakite, tiro besterik ez dute egiten”.

Omar eta bere familia Turkian egon ziren hilabete batez, Greziara zeharkatzen saiatu baino lehen. “Hoteletik irten ginenean itsasora joateko, ikaragarria

izan zen. Isilik. Zaratarik egin gabe. Ezin genuen ezer esan. Beldurgarria zen”.

Kostazain batek geldiarazi zuen txalupa pneumatikoa: “Ez zuten gelditu nahi. Guregana zetozen. Ontzi azkarrak zituzten. Gure txaluparen erdialdea kolpatu nahi zuten, gu geldiarazteko. Inork ez zekien zer gertatuko zen. Kostazainek gure txalupa kolpatu nahi zuten. Zortea izan genuen, gure txalupa gidatzen zuen tipoak azeleratu egin zuelako, eta ez gintuzten jo. Gure txalupa zuzentzen zuen tipoa harrapatu, eta gure aurrean jo zuten behin eta berriz”.

Berriro saiatu ziren 20 egun geroago. Orduko hartan, “gure motorra ez zebilen ondo. Arraunei eraginez joan behar izan genuen denbora guztian. Eta pisu handia zuten. Bi metro aurrera eta lau metro atzera egiten zenuela sentitzen zenuen. 50 pertsona baino gehiago ginen 40 pertsonarentzako egindako txalupa batean, eta ura sartu zen. Gu, haur txikiak (ni, arreba eta anaia txikia), erdian eseri ginen, eta heldu guztiek inguratu gintuzten. Egia esan, zapalduta gindoazen. Poltsak eta bestelakoak genituen gainean”.

“Harkaitzeko kostaldetik 20 metrora geunden. Sakonera handia zuen urak. Salbamendu-txalekoaren erdia besterik ez neraman jantzita, eta ez nekien igeri egiten. Txalupa hondoratzen ari zen... Ni ura sartzen zen aldean nengo. Igerian zekitenek salto egin zuten, eta txalupa bultzatzen saiatu ziren. Erori eta itotzeko zorian egon nintzen... Beldur handia ematen zuen”, esan zuen Omarrek. “Itsaso horretan jende asko hil zela entzun genuen”.

Greziara iristean, “animaliak zeuden leku batean hartu genuen ostatu, ukuilu batean, zazpi egunez. Ez genuen ezer lortu”. Atenasera iritea lortu zuten, Greziako hiriburura, eta handik 20-30 km egin zituzten egunero Serbiara iritsi arte; han, trena hartzen hasi ziren.

Azkenean, Suediara iritsi ziren, eta bere familia elkartu egin zen, baina Omarrek esan zuen zailtasunak izan zituela herrialde berrian integartzeko. “Lehen urtean ondo egon nintzen, ez bainuen inorekin hitz egin. Bigarren urtean, jendea pixka bat arrazista izan zen nirekin. Orduan, hizkuntza ikasi nuen, eta haiekin hitz egiten saiatu nintzen. Bosgarren mailan nengo. Nire erlijioaz hitz egin zuten, eta hitz arrazistak esan zituzten”.

“Suediarako bidea oso gogorra izan zen”, esan zuen Omarrek. Eta hau ere esan zuen: “Suediara iristen ari ziren ukrainarrez hitz egiten entzun nuenean, galdetu nien: nolakoa izan da zuen bidaia? Sekulakoa izan zela esan zuten, Suediara zuzenean ekarri zituen autobus bat hartu zutela. Eta pentsatu nuen: ez da bidezkoa. Egiaz, ez da bidezkoa”.

# EUROPAKO POLITIKEN ONDORIOAK HAURREN BURU-OSASUNEAN

Indarkeriatik ihes eginez beste herrialde batera iristen diren haurrek arrisku ugari egin behar izaten diete aurre. Definizioz, hiltzeko, lesioak jasateko edo jazariak izateko arriskua dute beren jatorrizko herrialdean, baina beren familietatik bereizteko arriskua ere izaten dute, edo gertakari traumatikoak bizitzeko eta leku seguru baterako bidaia arriskutsuak egiteko arriskua ere pairatzen dute. Iristen direnean, haurrek gizarte ezezagunetara egokitu behar izaten dute, askotan beren jatorrizko herrialdeetan izaten zituzten sare sozial eta familiarrik gabe, eta etendako hezkuntzari heldu behar diote berriro, oraindik ezagutzen ez duten hizkuntza batean, gainera. Eragin nabarmena izan ohi du horrek haurren buru-osasunean eta ongizatean.

Euste- eta disuasio-politikek, horiekin lotutako indarkeriak, zirkulaziorako mugek eta haur iheslariek askotan pairatzen dituzten baldintza txarrek,

segurtasuna eta laguntza eskaini beharko litzaiekeen une batean, larriagotu egiten dute gertakari traumatikoekin duten esperientziaren eragina, bai beren herrialdean, bai bidaian zehar. Save the Children erakundeak Grezian egindako ikerketa batean jasotakoaren arabera, Save the Childreneko langileek ikusi dute nola areagotu diren suizidio eta autolesio saiakerak bederatzi urte baino ez dituzten haurren artean, eta drogekiko eta alkoholarekiko mendekotasuna eta portaera oldarkorrek ere areagotu direla jabetu dira.<sup>110</sup>


2022an argitaratutako beste ikerketa batzuetan jasotakoaren arabera, Save the Childrenek elkarriketatutako haur guztiak indarkeria eta gertakari traumatikoak pairatu zituzten Balkanetako ibilbidean zehar egindako bidaian, eta gertakari horiekiko esposizio luzeari lotutako sintomak erakusten zituzten. Indarkeriaren eraginpean egondako haur txikiak beldurrak jota zeuden, lo hartzeko eta lo egoteko zailtasunak zituzten, eta tentsioa somatizatzen zuten. Haur nagusiek adierazi zuten esperientzia traumatikoen oroitzenak zituztela, indargabe eta etsita sentitzen zirela, etorkizunerako perspektibarik ez zutela eta beren aurreko balioak, sinesmenak eta ikuspegiak galduak zituztela.<sup>111</sup>

Save the Childrenek kezka adierazi zuen Kanarietara<sup>112</sup> (Afrikako kostaldetik gertu dagoen artxipelago espainiar horretara aldian-aldian jende asko iristen da) iritsitako haurren buru-osasunagatik. Haur horietako askok hamar egunera arteko bidaia arriskutsuak egiten dituzte Afrika mendebaldeko estatuetatik (Senegal eta Mauritania), askotan nabigaziorako egokiak ez diren txalupa puzgarrietan.<sup>113</sup> Zirkulazioa mugatuta dagoenez, harrerazentrotan pilatzen dira, eta bidaiek beren emozioetan izandako ondorioen aurka borrokatzen diren haurrek ez dute laguntza psikosozial eta buruko osasunerako laguntza egokirik jasotzen. Oso psikologo gutxi daude

uharteetan, eta ez daude prestatuta lekualdatutako haurrekin lan egiteko.<sup>114</sup>

Europar Batasunean babesa bilatzen saiatzen diren haurrek badakite diskriminatu egiten dituztela, eta arlo etnikoan eta erlijiosoan errespetu falta jasaten dutela salatzen dute, bai eta hitzezko erasoak eta umiliazioak ere; horrek guztiak beren buru-osasunari eragiten dio baita ere. Haurrei iseka egin diete, eta inork ez dituela maite ikustean, segurtasun falta sentitzen dute.<sup>115</sup> Mehdiak\* 13 urte ditu, eta Afganistangoa da; Save the Childreni kontatu zionez, "Bosnia eta Kroazia arteko muga zeharkatzera joan ginenean, oso hitz gogorrek esan zizkigun poliziak: "afganiarrak jende zikina zarete, eta ez duzue eskubiderik Europar Batasunean sartzeko".

Ukrainatik ihes egiten duten haurrek askoz ere babes eta zerbitzu gehiago jasotzen dituzten arren, buru-osasuneko arazoak izaten dituzte haiek ere. Save the Childrenek 2022ko udan Europako zortzi herrialdeetan egindako ikerketek agerian utzi zuten inkestan parte hartu zuten bi haurretatik bat edo gehiago larrituta eta kezkatuta zegoela bere etorkizunarekin, eta haur zaharragoek eta eskolatu gabe zeudenek larrituta edo kezkatuta sentitzeko probabilitate gehiago zituztela.<sup>116</sup> Mugetan segurtasuna izatea eta babesa eta zerbitzuak azkar eskuratzea lagungarria izan da Ukrainako haurren kasuan, indarkeriaren eta bestelako gertaera traumatikoen eragin handiagoa izatea saihesteko.



**Amelia\*** 6 urtekoa; Zaporizhzhian (Ukraina) bizi zen gurasoekin. Gerraren lehen 10 egunetan, bere familia hirian geratu zen. Zentral nuklearra bonbardatu zutenean, alde egitea erabaki zuten: "Zaporizhzhia bonbardatzen ari dira une honetan. Beraz, alde egin genuen. Maletak egin, eta alde egin genuen", dio Ameliak.

Hasieran, familiak ez zuen Ukrainatik irteteko asmorik. Ukraina mendebaldean geratu ziren, baina gerra luzatu egingo zela konturatu zirenean, alde egitea erabaki zuten. Lituaniara joan ziren bere autoan, Polonian barrena.

"Zapuztuta nengoen alde egin genuelako. Nire lagunak han zeuden, eta haiekin harremana galduko nuela konturatu nintzen", dio Ameliak. "Eraman nuen gauzarik garrantzitsuena peluxe-zko nire untxitxo izan zen, harekin egiten baitut lo. Amabitxiak eman zidan".

Amelia eta bere familia harrera-familia baten etxean gelditu ziren Lituanian. "Bi seme-alaba dituzte, Sofia eta... mutikoaren izena ahaztu zait. Mykolas. Gero lagunak egin ginen. Haien bizilagunak ohe elastiko bat du. Eta ondo pasatzen dugu elkarrekin".

Apartamentu batean bizi dira orain, eta Ameliaren aitak jatetxe batean egiten du lan. Ameliak bazekien bere amak zailtasunak izan zituela bera eskolan matrikulatzeko. "Ama luzaroan ibili zen eskola baten bila. Ilara egin behar izan genuen matrikulatzeko. Azkenean, eskolara joateko baimena lortu genuen, eta horrela egin genuen".

# BEHIN-BEHINEKO BABE-SAREN ETA SISTEMA DESOREKATU BATEN MUGAK

Ukrainako iheslariak EBn sartzen eta integratzen laguntzeko politika positibo asko egon diren arren, Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua ez da epe luzerako irtenbidea. Urtebeteko bizileku-baimen laburrak oztopo dira etorkizunera begirako plangintzak egiteko. Horrek integrazio-aukerei ere eragiten die, eta erronkak planteatzen ditu haurren hezkuntza planifikatzerakoan. Hizkuntza berri bat ikastea (lagun berriak egiteko eta etxean bezala sentitzeko funtsezko urratsa) zailagoa da ez badakizu herrialdean zenbat denbora gera zaitzkeen. Herbehereetan bizi zen

zaintzaile ukrainar bat elkarrizketatu zuen Save the Childrenek 2022ko udan, eta honako hau adierazi zuen: "Non biziko gara 2023ko martxoaren 4aren ondoren? Haurrak eskolatzeko-prozesuan murgilduta egongo dira, hizkuntza ikasiko dute, eta gero zer?"<sup>117</sup>

Aldi Baterako Babeserako Zuzentaraua behin-behinekoa izateaz gain, borondate politikoaren mende dago neurri handi batean, eta Kontseiluaren erabakiz atzera bota daiteke. Haur batek iheslari estatua edo babes subsidiarioa jasotzen duenean, estatus hori seguruagoa da. Asiloa eskatzea eta estatus bat jasotzea funtsezko alderdia da asilo-sistema eraginkorra izateko, eta Aldi Baterako Babeserako Zuzentaruak ematen duen babesak ez du hura ordezkatzeko.

